

Arruazuk hurrengo hamar urtetarako lehentasunak estrategia planean jaso ditu / 7

Arbizuko eskola zaharra kultur ekintzetarako espazio izatea erabaki dute / 11

Olatzagutian, hirugarren urtez, parte hartze aurrekontua martxan dago / 9

Palista onenak bilduko dira Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoan / 17

Juanjo Olasagarre Mendinuetak 'Mamu eratortzeko moduak' nobela aurkeztu du / 21

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolak sei urte bete ditu, eta gala batekin ospatu du / 23



EGUBERRIETAKO GEHIGARRIA



Gorenean utzi du

Ioseba Fernandez, munduko txapeldunak irristaketa utzi du / 2-4

115 tratu txar salaketa

Emakumezko sakandarrek 2018 eta 2021eko agorrila akabera artean jarri dituztenak / 12-13



Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI

Kolonbian azaroaren 11n Munduko Abiadura Iristaketa Txapelketan 100 metroko lasterketa irabazita, 32 urterekin eliteko irristaketa utzi du Ioseba Fernandez Fernandez iturmendiarrak, bere irristaketa ibilbidearen gorenean dagoela. Palmares ikusgarria du: Munduko Txapelketetan urrezko bost domina, zilarrezko sei eta brontzezko sei; Europako Txapelketetan hamaizapi titulu; eta Espainiako Txapelketan 32 aldiz txapeldun izan da. Munduko errekorrak ezarri ditu: 2012an 200 metrotan 15.879 segundokoa; 2012an 300 metroko erlojupekoan 23.938koa; 2018an 100 metrotan 9.684 segundokoa, urte berean 9.604ra jaitsi zuena eta 2019an, Marbellan, 9.55an egin zuena. 2012 urtetik ez da Munduko podiumetik jaitsi, bere ibilbideari agur esan arte, oso lasai eta eskertuta.

HASIERAK

Maite lehengusinak irristaketan zebilelako hasi omen zinen irristaketan.

Haur oso mugitua nintzen, eta kirol asko probatu nituen. Lehengusina irristaketan aritzen zen eta bera ikustera joaten ginenez, animatu nintzen. Etxean hasi nintzen irristaketan, bajaran. Iturmendiko frontoian ondoren, Uharte Arakilgo Aralar Mendi klubean hasi arte. Eduardo Gonzalo izan zen nire lehendabiziko entrenatzailea. Sei-zazpi urte izango nituen, baina aurretik jantzi nituen lehendabiziko patinak, lau urterekin, Frantziara egin genuen bidaia batean gurasoek erositakoak.

Aralar Mendin zenbait urte trebatzen ibili ondoren, Iruñeko bidea hartu zenuen, San Antonio taldera. Gogoan duzu zein izan zen irabazi zenuen lehen lasterketa?

Ez, baina oso gogoan dut Antoniuttin lasterketa bat bukatzea lortu nuen lehen aldian. Orduan Aralar Mendin nenbilen, eta 8 urte izango nituen. Normalean 200 metroko pista batean aritzen ginen, baina Antoniuttikoa zirkuaitu handiagoa zen, 435 metro-



Ioseba Fernandezek aitortu du bere kirol ibilbideari ezin diola gehiago eskatu. FEDERAZIOA

"Izugarri disfrutatu dut, eta bizitza guztia dut aurretik"

IOSEBA FERNANDEZ FERNANDEZ IRRISTALARIA

Iturmendiarrak eliteko irristaketa uztea erabaki du Kolonbian munduko txapeldun bosgarren aldiz izan eta gero. Bere kirol ibilbideari ezin diola gehiago eskatu adierazi du

koa, eta hango lasterketan beti doblatzen ninduten. Niretako nire lehen garaipena Antoniuttin doblatu ez ninduten lehen aldian izan zen, lehenengoz proba bukatzea lortu nuena, nahiz eta lasterketa ez irabazi, jakina.

Hortaz, hasieran ez zinen lasterketan nabarmendu.

Ez. Ni patin gainean entrenatzen nintzen zoriotsu. Garai hartan lehiaketa eta lasterketak bigarren mailan zeuden, erabat. Are gehiago, ez zitzaidan lehiatzea gustatzen. Gurasoei esan nien ez nuela lehiatu nahi, eta tarte batean ez nintzen lasterketetan aritu. Denborarekin, nire kabuz berriro ere lasterketetan probatzea erabaki nuen, eta horrela hasi nintzen, barrenetik atera zitzaidalako, ez derrigortutako zerbait bezala.

Hamabost urte zenituela Europako txapeldunordea izan zinen junior mailan. Salto garrantzitsua.

Iruñean jokatu zen Europako Txapelketa hura, eta lehenengoz aritu nintzen txapelketa kontinental batean, jubilenen mailan. Ni bigarren sailkatzea sorpresa hutsa izan zen, baina, aldi berean, bulkada handia.

2007an senior edo maila absolutua mustu zenuen, eta hor ibilbide berria hasi zen. Cobra-El Prat talde kataluniarrekin lehiatu zinen pare bat urtez.

Beti esan izan dut maila absolutuan hasi nintzela nabarmen-tzen eta maila ona izaten. Zorte handia izan dut nire ibilbidean lagundu nauten entrenatzaileekin. Maila bakoitzean izan ahal nuen entrenatzaile onena izan dudala uste dut. Txikitari Eduardo Gonzalok (Aralar Mendi) eta Araceli Larreak (San Antonio) erakutsi zidaten irristaketan garrantzitsuena disfrutatzea dela, ongi patinatzen ikastea, teknikoki zuzena izatea eta presa gehiegirik ez izatea. Nik orduan lehiaketetan ez nituen emaitza onak, baina oinarritzko lan handia egin genuen. Maila absolutura iritsi nintzenen entrenatzaileek entrenamendu fisikoari garrantzia handiagoa eman zioten, eta orduan gainon-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com
Arkinoturri Industrialdea - Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa



Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea

tzekoen maila berebean jarri nintzen eta nabarmentzen hasi nintzen. Klubei dagokienez, 2006ra arte San Antonion egon nintzen, Aracelirekin, eta 2007an maila absolutuan hasi nintzen, Cobra talde kataluniarrarekin. San Antonion ez zuten Aracelirekin jarraitu nahi izan, eta bera ez bazegoen nik San Antonion jarraitzeari ez nion zentzurik ikusi. Bi urtez egon nintzen Cobra-El Prat taldean, baina Aracelik entrenatzen ninduen. Ongi sentitzen nintzen berarekin, ez nuen entrenatzaile aldaketaren beharra ikusten. Beranduago, Berriro Ere talde nafarrera etorri zinen denboraldi batez, eta Amaya Sportekin urte pare bat aritu ondoren, 2016an Berriro Ere taldera itzuli eta orduetik bertan aritu izan naiz.

AIRERATZEA

2011 urtea mugarrria izan zen. Heerden (Herbehereak) jokatuak Europako Txapelketetan urrezko bi domina lortu zenituen, 200 metroan eta 500 metroan, zilarrezko domina bat eta brontzezko bi. Horretaz gain, zure lehendabiziko Mundialean parte hartu zenuen, Korean. Egungo Iosebaren lehen zantzuak urte horretan ikusi ziren lehenengoz. Txikitatik helburuak zehaztekoa izan naiz, baina 2011ra arte ez nuen amets handirik egiten. 2011n Europako Txapelketa nire helburu nagusia zen; lehiaketa ona egin nuen eta bost domina lortu nituen, urrezko biak tartean, zapora bikaina izan zutenak. Ilusio handiz gogoratzen dut. Bi hilabete beranduago Munduko Txapelketara joan nintzen; 200 metroko finalean laugarren sailkatu nintzen, baina sailkatze seriean munduko errekorra egin nuen. Nahiz eta dominarik ez lortu, une horretan munduko txapelduna izatera heltzeko aukera nuela sentitu nuen lehenengoz.

Ez zenuen asko itxaron beharrik izan, 2012an lehendabizikoz munduko txapelduna izan baitzinen Italian, 200 metroan, munduko errekorra ezarriz (15.879 segundo). Eta 300 metroko erlojupekoan zilarrezko domina lortu zenuen.

2011ko Mundialean konturatu nintzen alderdi psikologikoa landu beharra nuela, ez nengola oso ongi prestatuta. Horregatik, profesionalek jo nuen. Askok lagundu ninduten. Nire buruan sinesten, nire aukeretan konfiantza izaten eta nire bu-

ruari zer lortu nahi nuen esaten lagundu zidaten, nahiz eta helburu horiek handiegiak iruditu. Uste dut horrek asko lagundu ninduela 2012ko Mundu Mailako finalean seriean bezalako maila ona ematen.

2012tik Munduko Txapelketetako podiumera igo zinen eta orduetik ez zara podiumetik jaitzi. Bostetan izan zara munduko txapeldun, munduko 6 zilar eta 6 brontze dituzu, Europako Txapelketetan 17 titulu dituzu eta Espainian 32 aldiz izan zara txapeldun...

Ez ditut inoiz dominak zenbatu ez dudalako gustuko. Zintzoki, dominen kontua ez zait gehiegi axola izan. Txapelketetan lehiakorra izatea, hori izan da nire ilusioa.

2012an Txantreako patinodromoan 300 metroko erlojupekoko munduko errekorra apurtu zenuen. 24.250 segundotan zegoen errekorra eta 23.938 segundora jaitzi zenuen. Oso polita izan zen, senitarteko, lagun eta gertuko irristalariak ondoan izan zenituelako.

Ia nahi gabe sortutako zerbaite izan zen, nahiz eta jendeak hala uste ez izan. Denboraldi hasiera zen eta maiatzaren 1ean, urtero bezala, Txantreako Trofeoa jokatzen zena. Pistan entrenatzen nengoen, eta jabetu nintzen denborara oso onak egiten ari nintzela. Federaziokoei galdetu nien ea Txantreako Trofeoa 300 metroko erlojupekoko egin ahal nuen, zenbaki oso onak nituelako. Baietz erantzun zidaten, eta sorpresa hartu nuen, prentsan irakurri nuelako munduko errekorra apurtzen saiatuko nintzela. Halako zalaparta sortzea ez zen nire asmoa, baina Txantreako hurbileko senitartekoak eta lagunak bildu ziren, irristalariak, ikusleak... Ilusioz gogoratzen dut, une horretan oso ongi sentitzen nintzelako eta gertukoak

"GOZATZEA ETA TXAPELKETETAN LEHIAKORRA IZATEA, HORI IZAN DA NIRE ILUSIOA"

"ZORTE HANDIA IZAN DUT NIRE IBILBIDEAN IZAN DITUDAN ETA LAGUNDU NAUTEN ENTRENATZAILEEKIN"

zeudelako. Izan ere, gehienetan ezin dute Europako edo Munduko Txapelketetara ni ikustera joan. Egun hartan lan garrantzitsua egin nuen gertuko aurrean eta horrek poztu ninduen. **Zure zalerik handienetakoa, Iturmendiko Gabriel aitona, bertan zegoen.**

Bai, agertu zen lehenetariko bat izan zen. Beti ibili da ni animatzen eta beti esaten dit: "zuk ongi pasa, disfrutatuta eta ahal duzuna egin". Baina atetik ateratzen ari naizela aho txikiz gaineratzen du: "baina irabazi ahal baduzu, hobe". (Kar, kar...)

100 METROAK: MUNDUKO AZKARRENA

2017an Txinako Munduko Txapelketan 100 metroko zure lehendabiziko urrea lortu zenuen, eta orduetik 100 metroan munduko azkarrena izateagatik ezagutzen zaizu gehienbat. 2018an 100 metroko munduko errekorra ezarri zenuen (9.684 segundo), urte berean errekorra hobetu zenuen (9.604 segundo) eta 2019an Marbellan 9.55 segundora jaitzi zenuen.

Banakako probetan, erlojupekoan eta, bereziki, proba laburretan izan naiz espezialista. Abiadura irristaketan 100 metroko proba 2015ean ezarri zuen lehenengoz World Skate Nazioarteko Irri-taketa Federazioak, irristaketari ikusgarritasun gehiago emateko. Ordura arte 200 metrokoa zen laburrena, eta horregatik nire emaitzak proba horretan

zeuden. 2015eko Munduko Txapelketetan 100 metroan hirugarren sailkatu nintzen, 2016koetan bigarren eta 2017an munduko txapeldun izatea lortu nuen. Baina esango nuke 100 metroengatik baino, lehiatzen naizen probak prestatzeko egiten dudana eta prestaketarengatik naizela ezaguna. Nire baldintzak kontuan hartuta, agian ez naiz proba hauetarako egon daitekeen irristalaririk egokiena, baina lasterketa bat aztertu, ikasi, landu eta entrenatzeko moduagatik naiz ezaguna.

Zure prestakuntza beti %100ean zaintzen duzula jakina da. Entrenamenduak, elikadura... ez omen zara zehaztutako bidetik ateratzen.

Agian nirekin bizi direnei egin beharreko galdera da hori, baina nik esan dezakedana da gazetarik oso argi izan dudala bizitzan zer nahi dudana, eta nik erabaki dudala helburu horiek lortzeko egin beharreko sakrifizioak zeintzuk diren. Nire emaitzak dio ezagutu ninduean horrek deitu ziola arretera gehien: gauzak oso argi nituela eta nire kirol ibilbiderako horrenbeste zaindu behar izateak ez zidala aparteko esfortzurik eskatzen. Askok zaintzen naiz eta nahiko zorrotza naiz, baina gustuz egiten dut. Barneratua daukat eta disfrutatzen dut. Are gehiago, uste dut nire errutinetatik ateratzen banaiz nire izaera okertzen dela, gaizki sentitzen bainaiz. Orduan da okerren nagoen uea.

LESIOAK

Tamalez, ezin izan dituzu lesioak ekidin. 2019ko ekaina bukaeran Bartzelonan Munduko Irri-taketa Txapelketak jokatu ziren, eta haiek jokatu erretiratuko zinela ere entzuten zen. Baina zure urterik mardikatuena izan zen, lesioak bata bestearen atzetik izan zenituelako.

2019 urtea oso zaila izan zen. Ordura arte nire kirol ibilbidean ia ez nuen lesiorik izan. Entrenamenduaren alderdi guztiak asko zaindu eta kontrolatzen nituen, eta uste nuen horrek lesioak ez izaten laguntzen zidala. Eta bat-batean, horren erabakigarria zen urtean, horrenbeste itxaropen nituen urte horretan lesioak hasi ziren, bata bestearen atzetik. Non huts egin nuen aztertzen hasi nintzen, etorkizunean berriro akats berebean ez erortzeko.

Makineria gehiegi estutu al zenuen?

Ez zen hori izan. Burua ongi izatea oso garrantzitsua da, eta 2019an nire burua ez zegoen kirol kontuetan zentratuta. Hilabete batzuk lehenago gurasoak banatu ziren, eta horrek eragin handia izan zuen nigan. Ez nengoen egon behar nuen tokian. Lehendabiziko lesioa ez zen zorte txarraren ondorioa izan; entrenamenduetan ez nituen gauzak behar bezala egin, eta amorru handia sentitu nuen. Eta lehen lesioaren ondotik besteak etorri ziren. Burua eta fisikoa ez datozenean bat, oso zaila da gauzak ongi egitea.



Ana Llorens atletarekin "talde oso ona" osatu dutela dio Fernandezek. Argazkian, Marc semearekin. UTZITAKOA



Lesiotik ongi osatu gabe aritu zen Fernandez 2019ko Bartzelonako Munduko Txapelketan, eta ez zuen bere maila eman. FEDERAZIOA

Bartzelonan ezin izan zenuen zure maila eman baina abuztu bukaeran Iruñean jokaturako Europako Txapelketetan lau urte lortu zenituen.

Iruñean jokaturako Europako Txapelketak askorendako arrakastatsuak izan ziren, baina nik ez nituen batere gozatu. Zintzoa izan naiz beti: irristalari onenak lehiatzen daudenean gustatzen zait irabaztea, eta Iruñean bi irristalari oso on falta ziren. Horregatik, ez zen berdina izan, eta ez nuen lortutakoaz gehiegi disfrutatu. Eta, ez nengoene pertsonal oso onean.

Segidan pandemia iritsi zen. Nola bizi izan zenuen?

Nire kirolaz batere gozatu ez nuen urte baten ondoren iritsi zen pandemia. Bikotea eta biok, Marc gure semearengizatean zentratu ginen. Ezinezkoa zen etxean behar bezala entrenatzea, eta Marc-en hobe beharra gure kirol ibilbidearen aurretik jarri genuen. Une bakoitzean garrantzitsuena zer den jakin beharra dago, eta orduan semea zen garrantzitsuena.

2021, ITZULERA ETA AGURRA
2021ean Ana Llorens Perez bikotekidea atletismora ikusgarri itzuli da. Zu uztailen Europako 100 metroko txapelduna izan zinen Portugalen eta azaroaren 11n, Kolonbiako Mundu Txapelketan, 100 metroko txapeldun handia. Gorenean erretiratu nahi zenuela esan zenuen, eta horrela egin duzu, munduko txapelduna zarela.

2017an esan nuen Bartzelonako Munduko Txapelketa eta gero utziko nuela, baina Bartzelonan lesioengatik ez nuen batere gozatu, erabaki nuen ez nintzela Espainiako selekzioetik horrela erretiratu. Nire kirolaz horrenbeste urtetan disfrutatu, nola erretiratu nintzen oroimen txar horrekin? Horregatik aurrera egin nuen, Kolonbiako Mundu Txapelketetara arte. Lortutako emaitzatik harago, izugarri gozatu nuen Kolonbian: taldekideekin, entrenamenduetan, beroketetan eta baita 100 metroko finalean ere. Eta une horretan bertan eta nik ia ezer esan gabe nire erretiroaren berri eman zen, irristalarien artean gauza jakina zelako. Gau horretan Garikoitz Lerga hautatzailearekin hitz egin nuen eta esan nion hurrengo egunean jada ez nuela 200 metroko proban lehiatu nahi, 100 metroko oroimen horrekin geratu nahi nuela. Horrela erretiratu nintzen eta, egia esan, ezin diot nire kirol ibilbideari gehiago eskatu. **Ez zara irristaketaz bizi. Hortaz zure bizi ez da horrenbeste aldatuko.** Soilik bi urte eta erdi egon izan naiz irristaketan buru belarri, gainontzeko urteetan irristaketa lanarekin eta ikasketekin partekatuta izan dut. Kiroldegi batean kirol entrenatzaile pertsonala naiz. Hortaz, nire lanbidean jarraituko dut eta familian egunerokoaz gozatzen jarraituko dut. Espainiako irristaketa se-

lekzioari agur esan diot, baina oraindik irristalari izaten jarraituko dut eta agian orain arte egin izan ez ditudan zenbait probetan parte hartuko dut. Bestalde, irristaketaren munduan agian beste alor batzuetan tokia izan dezaket, irristaketa selekzio pare bat nirekin harremanetan jarri direlako abiadura irristalarien entrenatzailea izatea proposatzeko. Hainbat eta hainbat gauza egiteko bizitza guztia dut aurretik. Ezin naiz kexatu.

Orain arteko entrenamendu errutina mantenduko dituzu?

Munduko Txapelketen ondoren beti hartu izan dut atsedena, eta horretan nabil, baina ziur nago orain arte bezala nire burua zaintzen jarraituko dudala.

Senitartekoak pozik daude goi mailako irristaketa utzi izanagatik?

Bai. Lehiaketan gustura nagoela ikusten didatenean pozten dira, baina, aldi berean, lehiaketak tentsioa sortzen du. Azken urteetan, lesioak, gorabeherak eta bestelakoak direla, emazteak dio sufritzen ikusi nauela eta horrek tentsio handia sortu diola. Beraz, honaino. Anarekin talde bikaina osatu dugu, bera nire kirol ibilbideko azken 10-11 urteetako parte oso garrantzitsua izan baita. Egin dugun ibilbidearekin pozik gaude eta hementik aurrera puntu eta aparte bat egiteagatik lasai egon gaitezke. **Kirola utzea ez da erraza izanen.** Nire entrenatzaileek eta senitartekoek beti erakutsi izan

didate kirola nire hautaketa zela, baina bizitzan beste gauza gehiago daudela, eta nire esperantza guztiak ezin nituela kirolean jarri. Uste dut azken urte hauetan agurrerako prestatzen joan naizela. Ez nabil sare sozialetan, duela denbora bat utzi nituen, duela asko ez dudala ere aparteko elkarrizketarik eskaintzen... Kirolari asko lehiaketaren inguruan dagoen beste arrakasta horretara ohitu izan dira: prentsan ateratzera, ezaguna izatera, sare sozialetan jarraitzaile asko izatera... Zorionekoa sentitzen naiz mundu horrek ez nauelako batere ere erakartzen. Ni prentsan ateratzea nire kirolerako da ona, irristaketak behar hori duelako, baina, nik ez dut bertan ateratzeko edo sare sozialetan jarraitzaile ugari izateko behar hori izan. Eta laguntzen du.

KIROL EZ OLINPIKOA

Irristaketak ez du beste hainbat kirolek duten errekonozimendua eta ez da Olinpiar kirola. Olinpiar Joko batzuetan parte hartu ez izanaren pena al duzu?

Ez, inola ere. Gure kirola ez da Olinpiar kirola; hortaz, nik ez dut Olinpiar Joko batzuetan parte hartzeko ilusiorik ez itxaropenik izan. Kirolari bezala izan dudana ilusioa Munduko Txapelketara joan ahal izatea izan da, nire kirolean txapelketarik goren delako. Aritzen naizen txapelketa guztietan lehiakorra izatea, hori izan da beti nire ilusioa. Nik aukeratu dudana kirolak, gustuko dudanak eta disfrutatzen dudanak ez ditu Olinpiar Jokoak, Munduko Txapelketak ditu eta nik horietan gozatzen dut beste kirolari batek Olinpiar Jokoa gozatu ahal duen bezala. Hori bai, irristaketa Olinpiar Jokoa balitz, beste baliabide batzuk izango genituz-

"100 METROKO MUNDUKO TXAPELKETAKO OROITZAPENAREKIN GERATU NAHI NUEN"

"IRRIKAKETARI EZ ZAIO ESFORTZUAREN, BORROKAREN ETA SAKRIFIZIOAREN AITORTZA HORI EGITEN"

ke eta beste hainbat zerbitzuetarako sarbidea, baina norberak bere hautua egiten du, bere kirol ibilbidea du, niri hau egokitu zait eta oso harro eta zoriontsu sentitzen naiz, izugarri disfrutatu dudalako.

Beste kirol askorekin alderatuta, baliabide askoz ere gutxiago izan ditu irristaketak. Nazioarteko txapelketetan lehiatzeko lantokian oporrak eskatu behar dituzue, zuen dirua ere jarri behar izan duzue... Irristaketak bestelako aitortza izatea nahiko zenuke?

Goi mailan egoteko kirolari guztiek sekulako sakrifizioa egiten dugu, bai Olinpiar Jokoa kirolekoek eta baita beste guztiek ere. Eliteko kirolaren atzean dagoen esfortzua ikaragarria da, eta norbera bere diziplinan onena izateko egin beharreko lana itzela da. Kirol guztietan. Eta pena ematen dit gure kirolari, irristaketari, ez zaiola esfortzua, borrokaren eta sakrifizioaren balioen errekonozimendua hori egiten. Atzean dagoen lan izugarri hori ez da balorean jartzen. Irristaketa gutxienez kirola dela dirudenez, ez zaiola garrantzi asko ematen. Mundu mailako irristalari askorekin lehiatu izan naiz, eta beste herrialde batzuetan irristalari horiek soldata oso ona dute eta profesionalak dira. Hemengo irristalari batek euren mailan egon ahal izateko egin behar duen esfortzua oso handia da, hemen ez garelako profesionalak. Ekonomikoki laguntza gehien duten irristalariak kolonbiarrak eta korearrak dira. Laguntza handia dute.

Nola ikusten duzu irristaketa gaur egun? Egoera hobetu da?

Galdera zabala da. Nazioarteko Federazioa zenbait aldaketa egiten ari da gure kirolari ikusgarritasuna emateko, eta positiboa da hori. Baina, bestalde, federazioak epe luzerako plangintza egin beharko luke, irristalariak behar bezala prestatu ahal izateko. Irristalari profesionalak ez dute arazorik, baina hemengoak bere nagusiari oporrak aldatzea eskatu behar dio edo irakasleari azterketa datak aldatzea. Espainiako Federazioari begira, hemen gauzak ongi egin ahal izateko gure lana serio hartzu beharra dugu, eta beti ikasten eta lan egiten jarraitu. Inbidia eta ego handiak dauden herrialdean bizi gara, eta horrek ez digu hazten uzten.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Glasgown Ai hau pena guk eta bla-bla-bla

Berriki amaitu da Glasgow berotze klimatiko kari egin den goi bilera, eta emaitzak nola esan... botila ikuskatzearen moduko beste ariketa arrunt bat izan da, alegia, erdi hutsa, heren bat beterik, hiru laurden ardo ondu edo bosten bat ardo mindu; hots, zenbat buru hainbat aburu.

Nolanahi ere den, planetaren bizia eta datozen belaunaldikoen etorkizuna jokoan dagoen honetantxe, klima berotzearen hizpidea hedabideetan eta politikari eta enpresaburuen agendetan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da.

Kaleak, ordea, ez daude sobera asaldaturik munduko bazterretan, eta oro har mugimendu ekologistak ez du lortu ekimen eraginkor eta jarraiki bat, Greenpeace, Ekologistak Martxan, Eguzki, Greta Thunberg eta beste eragile askoren jardun adoretsua gorabehera.

Duela hogeita hamar urte planetaren iraupenaren inguruan egiten ziren hausnarketa eta abisu larriak alarmistatzen eta iluminatuen purrustadatzat hartzen zituen mundu mailako

KOMUNITATE ZIENTIFIKOAK BENETAKO NEURRIAK ESKATU DITU GEURE ESPEZIEAREN GEROA BERMATUKO BADA

mugarik gabeko kontsumo festa batean, ondoko belaunaldietako gizakiei puska mardul bat (edo bost seiren) jan die progresoren izenean.

Eta horratz, honelaxe gaude graziazko 2021 honetan, karbono isuriak nola deuseztu asmatu ezinda, ehun euro ordaindurik milaka kilometroko hegaldiak erosi eta kontent egiten ditugularik eta mota guztietako hondakinek gaina hartzen digutelarik.

Aspaldi samarrekoa zen deshazkundera doan garraiora igotzeko ordua. Garaiz ote gaude oraino?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Indarkeriak baditu hamaika aurpegi

SAKANAKO BERTINTASUN ZERBITZUA

Azken boladan ia egunero eraso eta indarkeria matxistarekin lotutako berriak ikusi izan ditugu komunikabideetan Euskal Herrian. 2021a amaitzear dagoela, jasotako datuak ez dira batere pozgarriak.

Nafarroan, esate baterako, 2021. urteko urtarriletik irailera bitartean 1.213 salaketa aurkeztu dira; hau da, egunean lau salaketatik gora. Hori gutxi balitz, datuek azpimarratzen dute 2020. urtearekin alderatuz

salatzaileen %40 29 urtetik beherakoak direla, eta erasotzaileen %71k 30 urte baino gehiago dituzte. Beraz, adinaren aldagaia adierazgarria da, baina ez da eragina izan dezakeen aldagai bakarra: adina, jatorria, baldintza materialak, klasea eta bestelakoak askotan erabakigarriak izan daitezke indarkeria sufritzeko orduan.

Esaterako, Nafarroako Gobernu lanaren inguruko azken txostenaren arabera, langabezia erregistratutako hamar pertsonatik sei emakumezkoak dira. Baina, soldatepeko enpleguaz ez ezik, zaintzak emakumeen gain diraute. COVID-19ak eragindako egoeran emakumezkoak izan dira ondorio latzenak jasan dituztenak; bai langabeziari, bai familiako edo bestelako

pertsonen zaintzaren ardurari dagokionez.

Horrelako datu eta zenbakiez gain informazioa edukiko dugu egun hauetan, baina ezin ahantz dezakegu emakumeen aurkako indarkeria zuzenatarikoa gizonezkoek eragiten dutela, eta horiek gure inguruko senideak, lagunak, ezagunak, lankideak... izan daitezkeela. Hor jarri beharko genuke fokua. Hala ere, indarkeriak baditu hamaika aurpegi, eta estrukturala denez, esparru guztietara zabaltzen da.

Beraz, egiturazko aldaketak behar dira, munduko biztanleriaren erdiak indarkeriarik gabeko bizitza duin eta bizigarriak merezi dituelako.

Gauzak horrela, azaroaren 25aren inguruan antolatutako mobilizazioetan eta jardueretan parte hartzera animatzen zaituztegu.

GUTUNA

Basoitxi, Bitxi Preziatua Altsasun

MANOLA ARREGI, SUSANA AIESTARAN ETA LAGUNAK

Basoitxin haritz amerikarraren hainbat lursail arrasean moztu ondoren, hausnarketa batzuk partekatu nahi ditugu zuekin.

Argi denez, udal planaren asmoa da Basoitxiko amerikar pinu eta haritz guztiak moztea. Hori eginen balitz, herriatik gertu dauden 27 hektareako baso landarearen zati handiena ezabatuko litzateke. Eta, adituen arabera, 25-50 urte inguru itxaron beharko gozatzeko.

"Esku-hartze bakarra" beharko lukeela argudiatuz,

Nafarroako Gobernuaren teknikoek horrelako prozedura zorrotz eta muturrekoaren alde egiten dute, oihanean eta gainerako ekosisteman izan daitezkeen ondorio kaltegarriak kontuan hartu gabe.

Duela ehun urte inguru, Basoitxi baso labore gisa sortu zen, baina, denboraren poderioz, ezinbesteko lekua bilakatu da jende askorentzat, aisialdirako arnasgune paregabea: landarearen hostozabaltasun edertasunarengatik, hurbiltasunarengatik eta irisgarritasunarengatik altsasuar askorentzat Central Park moduko bat bilakatu da.

Badakigu izaki bizidun askoren biziraupena haien arteko hartu-emanen menpe dagoela; eta Basoitxiko zuhaitzak horren parte direla.

Zuhaitz zaharrenek gazteei eskaintzen diete babesa, landare berriak sortzeko.

Amerikar haritzaren mozketa mendiarentzat onuragarria dela diote batzuek; hala ere, badaude bestelako garapen progresiboa ezartzen duten errespetuzko birsortze era organikoak.

Komunitate osoarentzat ondorio erabakigarriak dituen gaia izanik, mozketa masiboa gelditzea eskatzen dugu; horri buruzko eztabaida eta herri-kontsulta bat egiten dugun bitartean.

Bukatu aurretik *Plegaria al Árbol* idatzia irakurtzera gonbidatzen zaituztegu, hamarkada batzuk dira udaletxe osoko bilkuren aretoan ikusgai dagoena. Egin dezagun bizitzeko gogoia ematen duen herri eder baten alde.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu

GUTUNA

Euskaraz bizitzeko, Euskararen Errepublika

ALTSASUKO EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ

JUNE BENGOTXEA,
MAIALEN BEGIRISTAIN ETA
HAIZEA RAMIREZ DE ALDA

Ikusgarria da azken mende erdian euskararen alde euskaldunok egin dugun lana. Zenbatezina dira urte hauetan euskaraz bizitzeko herriz herri egin ditugun ekimenak eta sortu ditugun egitasmoak. Horri guztiari esker euskara galzoriaren ertzetik urruntzea lortu dugu, harro egoteko modukoa den herri ahalegina izan delarik.

Asko egin eta lortu dugu zalantzarik gabe, baina ez da nahikoa, oraindik ere ezin baikara euskaraz normaltasunez bizi. Gure haur askok ez dute euskara maila nahikoa lortzen, eta lortzen dutenen kasuan erdaraz hitz egiteko joera nagusi da. Udalera jotzen dugunean, edo medikuarengana, edo beste zerbitzu publikoetara, langile euskalduna topatzea mirari bat izaten da askotan. Lan munduan euskararen presentzia hutsaren hurrengo da eta teknologia berrietan ere sinbolikoa da. Hori gutxi ez eta

euskararen eta euskaldunon aurkako espainiar eta frantziar estatuen ekinbideak ez du etenik, azken egunetako adierazpen eta epaiek adierazten diguten bezala.

Urteotan euskararen alde egindako lan guztia bururaino eraman eta euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko burujabetza behar dugu ezinbestean. Soilik euskaldunoi dagokigu erabakitzea zein nolako hizkuntza politika aplikatu behar den gure herrian. Burujabetzarik gabe kanpoan erabaki eta ezartzen digute euskararen hedapena noraino eta nolakoa den, gure eskumenak erabaki horiek mugatuak direlarik, mendekotasun egoeran.

Ondorioz, duela 40 urte gure herrian ezagutu genuen euskararen aldeko susperraldi berri baten beharra dugu. Pertsona eta talde euskaltzaleak berriz ere aktibatu eta kalera ateratzeko unea dugu.

Euskal Herrian Euskarazek kalera ateratzeko deialdia luzatzen dizu beraz, euskaltzale lagun hori. Gure eskubideen defentsan eta Euskararen Errepublikaren alde, abenduaren 6an Durangon deitu dugun manifestaziora gonbidatzen zaitugu. Euskaraz bizitzeko, kalera!

Zortzigarren kalendaiyua egiteko argazki eske

Heldu den astean herriko kalendaiyuari azken orria pasako diote bakaikuarrek, asteazkenean abenduan sartzen baikara. Hilabeteko egutegiarekin batera herriko argazki bat ikusgai izanen dute 31 egunez. Baina haiek pasa ondoren, kalendaiyua mustu beharko dute, 2022koa. Eta hura egiteko herriarekin lotura duten hamabi argazki behar

dituzte, Bakaiku protagonista izanen den egutegia egiteko.

Kalendaiyua bakaikuar guztien artean egin nahi dutenez, egileek bakaikuarrei argazkiak bidaltzeko eskatu diete, gaur egungoak edo garai batekoak izan daitezke. Argazkiak, paperean edo modu digitalean, estankoan, Koxkon edo udaletxean utzi daitezke, edo bakaiku.egutegia@gmail.com e-posta helbidera bidali. Irudiak ostegunera arte aurkez daitezke. Argazki guztiak jabeen berehala bueltako dizkiete.

Aralarren orientazioa praktikatzeko zirkuitua

Mapa eta iparrorratza erabilia puntu batetik bestera joatean datza orientazioa. Aralar Elkarteak hiru zailtasun maila dituen zirkuitua prestatu du. Erraza Albiko aparkalekutik abiatzen da, zailtasun ertain eta zailkoak Guardetxeko aparkalekutik

SAKANA

Orientazioa praktikan jarri nahi dutenek ibarreko mendietan aparteko aukera dute. Mendiek berez eskaintzen dioten aukera horri beste bat gaineratu dio Aralar Elkarteak ostiralean mustu zuen Aralar-ko orientazio zirkuituarekin. Arituek praktikatzeko aukera izanen dute eta orientazioa ezagutu nahi dutenek ere aukera izanen dute. Zirkuituak hiru ibilbide ditu: erraza (kolore berdez margotutako baliza), ertaina (urdina) eta zaila (gorria). Logikoa denez, ibilbideak ez daude seinaleztatuta, helburua baita mendian orientatzen jakitea eta hiru ibilbideetan barna banatuta dauden zenbait lekutara (balizak) iristea.

Kirol horretan aritzeko mapa bat eta iparrorratza besterik ez dira behar. Aralar Elkarteak orientazio mapa sortu du eta han markatu ditu ibilbidea osatzen duten puntuak. Jakina, helburua da mapa erabiliz orientatzea eta, aukeratutako ibilbidearen arabera, zenbakidun balizak bata bestearen atzetik opatzea. Ibilbideen abiapuntua Guardetxearen aparkalekua da. Bertan, informazio orokorreko panela eta maila ertain eta aurreratuko ibilbideen hasierak daude. Albiko aparkalekuan,



Zirkuituk mapak paperean eta digitalean eskuratzeko aukera dago. ARALAR ELKARTEA

hasiera mailako ibilbidearen zero puntua dago.

Zirkuituarekin, Aralar Elkarteak, batetik, mendiaren natura, paisaia eta kultura balioak ezagutaraztea du helburu, baita haren erabilera eta aprobetxamendu tradizionalak ere. Horrekin batera, elkarteak naturarekin harremanetan egiten diren ohitura osasungarriak sustatu nahi ditu, kasu honetan jolaserako eta aisialdirako aukera hezigarria eskainiz. Zirkuituak natura ingurunean orientazio trebetasunak susta-

tzeko balio du. Gainera, Aralar-ko natur gunearen erabilera arduratsua eta errespetuzkoa bulkatu nahi dute. Orientazio zirkuitua Sakana eta Plazaola inguruetakotako turismo eskaintza zabaltzen laguntzeko bidea izan daitekeela ere uste dute elkarteek. Aralar Elkarteak Sakana Garapen Agentziaren, Plazaola turismo partzuergoaren eta Nafarroako Kirol Elkartearen laguntza teknikoa izan du. 12.886,50 euroko aurrekontua du. Nafarroa Ezagutu Sareak %80ko dirulaguntza eman du.

Lizerratarrak festetan, majo

San Klemente festak hasteko Txominek prestatutako 146 kilo tripota jan ziren. Bestetik, aurreko bi urtetan 80 urte bete dituzten Jose Mari Navarro Bono, M^a Dolores Larraza, M^a Jesus Urrestarazu eta Jose Navarro omendu zituzten. Musean txapeldun Jaione Andueza eta Julen Goikoetxea izan ziren, Eneko Etxarri eta Jon Navarrori irabazita.



UTZITAKOIA



Arbazarrek estrategia plana egiteko bilera batean. EMUN

Etorkizuneko Arruazu gaurtik

Hamar urte barru herria nola izatea nahi duten pentsatu dute arbazarrek eta estrategia planean jaso dute. Lau ardatz ditu: espazioak, antolatutako aisialdia, zaintza eta etxebizitza. Epe labur, ertain eta luzera bete beharrekoak zehaztu dituzte

Alfredo Alvaro Igoa ARRUAZU

Arruazuko estrategia plana egiteko prozesua irailaren bigarren asteburuan hasi zuten Emun enpresako teknikariek. Bost arbazuari elkarrizketa sakonak eginez hasi ziren. Irailaren hirugarren asteburuan gazteekin, emakumezkoekin eta adinekoekin elkartu ziren teknikariak haien ikuspegiak jasotzeko. Lastailean bi batzar irekitan bidea definitu ondoren, larunbatean despeditu zuten estrategia plana egiteko prozesua.

Gorka Ovejero Ganboa alkateak azaldu duenez, prozesuan adin guztietako 70 bat herritarrek parte hartu dute. "Prozesuaren balorazio positiboa egin dugu", gaineratu du. Arruazuko estrategia planak lau ardatz ditu etxebizitza, barne eta kanpo espazioak, antolatutako aisialdia eta zaintza. "Bakoitzean

epe motz, ertain eta luzerako helburuak zehaztu ditugu. Ez dugu lehentasunik markatu, denak aldi berean egiten joanen gara. Batzuk auzolanean egingen ditugu, besteetarako dirulaguntzak beharko ditugu", argitu du Ovejero.

Etxebizitza

Alkateak azaldu duenez, "ardatz zailena da. Herriko Alde Zaharra husten ari da eta etxeak herriaren kanpoko aldean eraikitzen ari dira". Horregatik, arbazarrek etxebizitzaren arloan honako lehentasunak zehaz-

"EZ DUGU LEHTASUNIK MARKATU, DENAK ALDI BEREAN EGITEN JOANEN GARA"

tu dituzte: etxe zaharrak birgaitzea, etxebizitza hutsei zergak igotzea, etxebizitza beharren inguruan inkesta bat egitea (balizko saltzaileei eta erosleei); udalak bitartekari lanak egitea, udalak etxe bat erosi, udalak erosketara dirulaguntzen bitartez egitea, Nafarroako Gobernuarekin dirulaguntza aukeraz hitz egin, bitartekari profila lantzea eta bitartekaritza egingen duen norbait bilatu, etxejabeekin hitz egiteko.

Zaintza

Arlo horretan arbazarrek lortu nahi lituzketen helburuak dira: taxi zerbitzua (udala eta Gizarte Zerbitzuen artea); bidaiak partekatzeko aplikazioa; arbazarrek koordinatu eta egiten diren bidaiak baliatzea; Gizarte Zerbitzuen bitartez ekimenak egiteko pertsona bat jartzea;

herrian hirugarren adinekoek dituzten beharrak asetzeko (erosketak, medikura joan...) pertsona talde bat egitea; herriaren etxean igogailua jartzea; udalak hirugarren adinakoendako gune egoki bat egitea; belaunaldien arteko zaintza eta komunitatearendako zerbitzu bankua sortzea.

Ovejero azaldu duenez, "lehen medikua ostiralero etortzen zen herrira. Pandemiaren geroztik etortzeari utzi dio eta Osasunbideari eskatuko diogu zerbitzua berrezartzeko".

Espazioak

Estrategia plana egiterakoan arbazarrek barne eta kanpo espazioak bereizi dituzte. Herritarrek barne espazioei makina bat erabilera eman nahi liekete: liburutegia, ikasgela, ludoteka, gimnasioa, kirol gunea... Barne espazioen kudeaketarako (giltza, ardurak, koordinazioa...) proposamena egin beharko lukete.

Arruazuko kanpo espazioei dagokienez, estrategia plana egiterakoan hainbat gai atera ziren: estalpearen beharra, aparkalekuak, herri barruko trafikoa arautu, ubeldea txikundu, gazteen beharrak aseko dituen toki autogestionatua...

Antolatutako aisialdia

Estrategia plana landu bitartean arbazarrek hainbat adin hartuko dituen antolatutako aisialdiaren beharra nabarmendu dute, esate baterako: dantza,

yoga, gimnasioa, sukaldaritza, jostintza. Horrekin batera, egoki jo dute herri guztiarendako ekimenak antolatzea: irteerak, mendi ibilbideak, herritik kanpora irteerak... Urtero errepikatuta daitezkeen egutegia ere zirriboratu zuten: martxoan Emakumearen Eguna lotutako kultur adierazpen bat, apirilean liburu baten aurkezpena edota ipuin kontalaria, garagartzaroan festak, garilean mendi irteera irailean herritik kanpora joateko kultur irteera, abenduan Euskararen Eguna eta antzerkia, eguberrietan kontzertua, Olenzero eguna hobetzea eta indartzea. Jakina, kultur agenda hori guztia aurrera ateratzeko ardurak banatu beharko dira.

Gobernantza eredua

Arruazuko Udalak alkateak eta lau zinegotzik osatzen dute. Baina udalarekin lotutako lanak egiten hamazortzi arbazar daude, herritarren %16,98. Herriaren alde lan egiten duten arbazar horiek udalaren batzordeetan parte hartzeko aukera dute, udal ordezkariekin batera. Duela bi urtetik batzordeetan onartzen diren erabakiei udalak baiezkoa, legezotasuna ematen die plenoan. Gaur egun honako batzordeak dituzte: hirigintza; natur baliabideak; udaleko lanak (udalak langilerik ez duenez, auzolanean egiten dira lanak) eta euskara, kultura, gazteria eta festak.

Datorren Guaixe astekaria abenduaren 2an publikatuko da.

Eta abenduaren 10ean ez da Guaixerik egongo.





Haur eta guraso etxarriarrak parkean egindako pankartak jartzen. UTZITAKOA

Helduek euskara gehiago erabiltzeko gonbidapena

Etxarriko Euskara Batzordeak, Lakuntzako eta Olatzagutiko eskolek eta Iñigo Aritzak ikastolak bat egin dute 'Haurren aurrean, helduok heldu' ekimenarekin. Helduak haurren zuzeneko erreferenteak direnez, hizkuntzapraktikak aldatzeko ekimena da

SAKANA

Urte bat barru Euskaraldia bete betean izanen da, hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa masiboa. Ez dago hura iritsi arte zain egon beharrik hizkuntza praktikak aldatzeko. Are gutxiago Euskaltzaleen Topaguneak *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimena astelenean hasi eta abenduaren 5era arte iraunen duenean. Baina nahi beste luzatu daiteke. Topagunetik azaldu dutenez, "umeen erreferente eta gertuko diren helduen arteko hizkuntza portaeretan eragitea eta euskararen erabilera areagotzea da helburua. Baina ez haurrei hitz egiterakoan, baizik eta helduak beraien artean hitz egiten dutenean".

Euskaltzaleen Topaguneak 0 eta 12 urte arteko umeen familia kideei, senideei eta gertuko helduei (gurasoak, senideak, hezitzaileak, zaintzaileak...) zuzendu die ekimena. Zehaztapena ere egin dute, "helduak esatean, 16 urtetik gorako herritarrei

buruz ari gara". Umeen eredu diren helduen euskarazko portaerak bultzatuta, haurrek euskaraz hitz egitea normalizatzea eta hizkuntza portaera hori barneratzea, hori da ekimenaren helburua. Topagunetik gaineratu dutenez, "helduen arteko hizkuntza portaerak umeengan duten eraginari sarkotasun gehiagorekin erreparatzea da asmoa. Izan ere, familia da sozializatze lehen taldea eta hori da, gerora, familiak kanpoko harremanetarako umeen oinarria".

Horregatik, Euskaraldian bezala, portaerak sozializatzen jarraitu eta herritarren praktikan integratzea da ariketaren helburua, arau sozial bihurtu daitezkeen. Azken finean, "Euskaldunok euskaldunok euskaraz egiten dugu" arau soziala indartu nahi du ariketak. Hiru oinarri ditu. Lehenik, solaskideek euskara dakiten kasuetan euskaraz hitz egitea (euskaldunak euskaldunari euskaraz). Biga-

rrenik, lehen hitzak euskaraz egitea ezezagunei eta euskaraz ulertzen duten ezagunei. Eta, hirugarrenik, hizketakideak ulertu bai, baina euskaraz hitz egiten ez badu, euskarari eutsi, elkarrizketa elebiduna izateko.

Sakanan

Etxarriko Udaleko Euskara Batzordeak ekimenarekin bat egin du. Gurasoak, euskaltzaleak, Andra Mari ikastolak, San Donato eskolak eta Danbolintxulo haur ludotekak bat egin dute kanpainarekin. Igande eguerdian estalopean elkartu ziren gurasoak eta haurrak, irudiak egin eta haiekin plaza apaindu zuten. Ondoren, Etxarri Kantuz kalejiran aritu zen. Larunbatean,

EZ DATZA HAURREI EUSKARAZ HITZ EGITEAN, BAIZIK ETA HELDUEK BERAIEN ARTEAN HALA ARITZEA

12:30ean, erraldoien konpartsa kalera aterako da, udaletxe aurreko plazara. Ondoren, margotzeko txokoa egonen da. Egitaraua abenduaren 5ean despedituko da. 17:30ean Anaitz Igoa Goñi eta Joxe Aldasoro Jauregiren *Rolihlahla* albumaren aurkezpena egingen da kultur etxean. Bukatzean, ondoko estalopean txokolate jana egonen da.

Ikastetxeak

Lakuntzako eskola publikoan *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenaren leloarekin haurrek eskumuturrekoak egin zituzten. Haiek etxera eraman eta gurasoei jarri zizkieten, kanpainak irauten duen bitartean jantzita izan dezaten. Gainera, gurasoek kanpainaren berri ematen zuen oharra era jaso dute. **Olatzagutiko** eskola publikoak gurasoei bileran eta eskolan egindako bideo bidez azaldu zaie. Asteartean eta asteazkenean ikasleek euskararen erabilerearen aldeko pankarta handiak eta kartelak egin dituzte, eta pankartak herrian barna jarri dituzte, kalean eta denda eta tabernetan.

Gainera, ekimenaren leloarekin lepokoak egin dituzte ikasleek. Astearteetan, azoka eguna dela baliatuz, hara joan eta han abestu eta lepokoak olaztiarren artean banatuko dituzte. Olatzagutiko eskola publikoak heldu den ostegunean despedituko du ekimena. Frontoian talde guztiak elkartuko dituzte eta bakoitzak euskaraz zerbait egingen du. Ekimena despeditu ondoren, eskolatik gurasoak bilerrara hots egingen dituzte, ekimenaren balorazioa egiteko.

Iñigo Aritzak hasteko, guraso eta irakasleek hartutako hainbat konpromisorekin bideoa egin dute eta ikastolako komunitatearen sare sozialen bidez zabaldu dute. Hartutako konpromisoen artean dagoeneko betetzen dituzten batzuk daude: euskaraz bizitzea, euskal kultura sustatzea, euskara ez dakiten guraso batzuek agurrak euskaraz esan eta etxeko euskararen eskaintza zabaltzea edota jolas parkeetan gurasoak eragile bihurtu haurrak euskaraz aritu daitezkeen. Kanpainaren kartelak ikastetxetako sarrera-irteeretan ikus daitezke. Aurretik Euskararen Egunaren bueltako egitaraua prest zuten eta ekimena bertan sartu dute.

LHko irakasle lekualdatze lehiaketa, kalterako

LHko bost irakasleren lanpostuen hizkuntza irizpidea euskara izatetik gaztelania izatera pasa da

SAKANA

Hezkuntza Departamentuak Sakanan Lanbide Heziketa (LH) institutuaren plantilla organikoaren aurreikuspena egin du. LABek, STEILASEk eta ELAK azaldu dutenez, "aurreko plantilla organikoan euskarazko lanpostu hutsak betetzeko beharra antzeman zen, izan ere institutuko ikasleen %75etik gora euskaldunak baitira eta hala haien beharrak betetzen dira". Sindikatuek gogorarazi dute azken urteetan, institutuko zuzendaritza taldeak eskatu duela lekualdatze lehiaketaren bidez sartu diren karrerako irakasle funtzionario berriek euskaraz jakitea, ikasle euskaldunen eta ez euskaldunen beharrak bete ahal izateko. "Antzeko prozesuak egin ziren eremu euskalduneko LHko beste bi ikastetxeetan, eta gaur egun zikloak euskaraz ematen dira", gaineratu dute.

Sindikatuek salatu dutenez, institutuko plantilla organiko berrian "urte batetik bestera, bost irakasleen plazan hizkuntza aldatu du, orain gaztelania eskatzen zaie euskara beharrean". Eta "2020-2021eko leku aldatzean irakasle euskaldun bati eman zitzaion plaza aurten eman diote eta orain murrizteko proposamena du". Sindikatuek Hezkuntza Departamentuaren "planifikazio negargarria" nabarmendu dute, "edo akaso eremu euskalduneko ikastetxe bati euskarazko plazarik ez emateko beste arrazoiren bat egonen da, ulertzen ez duguna. Bitartean, jakina, Sakanako ikasle euskaldunak kaltetuak".

LH institutuan mendi ertaineko eta eskaladako zikloak irakasten dituzte. Sindikatuek jakinarazi dutenez, "haien euskarazko heziketa fisikoko plaza, murriztera atera da". Ikasketa horiek Altsasun jarraituko ote duten kezka adierazi dute.

Hirugarren parte hartze aurrekontuak

Olaztiarrek udalaren parte hartze aurrekontuetara poposamenak aurkezteko aukera dute asteartera arte. Udalaren 30.000 euro zertara bideratu erabakiko dute herritarrek parte hartze prozesu horren bidez

OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Udalaren iritziz, "herritarren partaidetza elementu aberasgarria da, bizilagunak udalaren parte izan daitezten bideratzen duelako". Horregatik, *Zuk proposatu, zuk erabaki* parte hartze aurrekontua abiarazi du. Olaztiarrek eta herriko elkarte eta kolektiboek nahi beste proiektu aurkeztu ditzakete. Udaletik gaztigatu dutenez, "interesgarriena proiektuak aurkeztea da, prozesu horretan aukeratuak izan ez arren, herritarren eskaera horiei buruzko ezagutza ematen digu eta beste diru partida batzuekin edota etorkizuneko aurrekontu parte hartzaileekin eskari horiei irtenbide ematen saiatuko gara".

Joan den astean udalak etxe guztietan banatu zuen prozesuaren berri eta proposamenak aurkezteko orria. Orain herrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako olaztiarrek egin ditzakete proposamenak, eta haiek aurkezteko epea asteartean despidituko da. Horretarako, proposamen idatzia bete eta udal txeko bulegoan (astegunetan 10:00etatik 14:00etara), udaletxeko postontzian edo udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu daiteke. Udaletik gogorazi dutenez, "obra lanak



Olaztiarrek San Migel plazan. ARTXIBOA

(berriak edo mantentze lanak), erosketa iraunkorrak (inbertsioak) edota udal eskumena den beste edozein eremuko ideia aurkez daiteke.

Udalak jasotako proposamenak aztertu egingen ditu abenduaren 1ean eta 2an. Eta, parte hartze aurrekontuekin bukatzeko, abenduaren 10etik 19ra gogoko proposamenen alde botoa emateko aukera izanen dute kultur etxean jarritako hautestontziaren, www.olazti.eus webgunearen eta 948 012 012 telefonoaren bidez, beti ere, Olatzagutian erroldatuta

badaude eta 16 urteak beteak badituzte.

Eskarmentua

2018an olaztiarrek erabaki zuten argiteria publikoa eraginkorrago izateko LED argiak jartzea. 2019an, berriz, Vicente Argomaniz plazako hesia eta arkitektura oztopoak kentzea erabaki zuten. Lanak egiteko aurreikusitako 30.000 euroak motz gelditzen ziren, beraz, arkitektoak proposamenak egiteko aurten 6.000 euro jarri dira. Olaztiarrek gogokoena aukeratuko dute.



Guraso eta senideak festa hasierako umeen harreran argazkiak egiten. ARTXIBOA

Udalak 2022ko festa egutegia zehaztu du

Ilbeltzaren 6an aurreko bi urtetan jaiotako altsasuarrei harrera egingen die

ALTSASU

Herriko ospakizunak direla eta, egutegian gorritz markatzeko hamaika tarte dituzte altsasuarrek. Altsasuko Udalak heldu den urteko festa egutegia zehaztu du. Bestalde, pandemiagatik bi urtetan bertan behera gelditu da aurreko urteetan jaiotako umei harrera egiteko festen hasierako ekitaldia. Hori dela eta, Altsasuko Udalak erabaki du harrera hori egun seinatua egitea: kintoen buruzagiak aukeratzaren diren egunean, ilbeltzaren 6an. Egun horretan, 11:00etan, 2019an jaiotako umei egingen die harrera udalak. Eta 12:00etan 2020an jaiotakoei. Seme-alabak Altsasun erroldatuta ez dituzten gurasoei eskatu die izena emateko. Horretarako, kultur gunetik pasa edo www.iortiakultura.com webguneko galdetegia bete beharko dute abenduaren 20rako.

Altsasuko 2022ko festa egutegia

- **Otsailak 5-8** Santa Ageda
- **Otsailak 27** Haur inauteria
- **Martxoak 1** Herri inauteria
- **Martxoak 5** Hiri inauteria
- **Maiatzak 7-9** Alde Zaharreko festak
- **Garagarrikak 23-24** San Joanak
- **Garagarrikak 29** San Pedro
- **Garilak 11** Erkuden
- **Garilak 18** Bargagaingo igoera
- **Irailak 14-18** Festak
- **Lastailak 15-16** Feriak

Hilabetez lanetan egon ondoren, Gartzia Ximenez zabalik

Ostiralaz geroztik Gartzia Ximenez kalea trafikora zabalik dago. Udaletxe pareko lorategiko izkinatik Zubeztiako bigegurutzera arteko tartean, 90 metro, espaloiak eta errepedea altura berean daude. Udalak despiditu duen beste lan bat eskolako patioan euri urak jasotzekoa da. Orain Garbitoki eraikinean igogailua berritzen ari da.



Gartzia Ximenez kale berritua.

Hiru herrietako eskola jangeletarako 8.113,2 euro

Herriko eskola publikoan jantoki zerbitzua eskaintzen dituzten eta 1.500 biztanletik behera duten herrietako udalek diru-laguntza jasoko dute: Uharteko Udalari 1.419,81 euro San Miguel eskolako jantokian dauden zazpi ikasleengatik, Lakuntzako Udalari 2.433,96 euro 12 ikasleengatik eta Arbizuko Udalari 4.259,43 euro 21 ikasleengatik.

PIRRITX PORROTX
ETA MARIMOTOTOTS

Abenduaren 3an, 18:00etan
Irurtzungo Kiroldegian

Sarrerak 8 € Martxuetan, Pikuxarren
eta Estankoan (Irurtzun)
Maimur liburudendan (Leitza)



Aterpeko langileak gobernuaren egoitza parean protestan. @LAB_SAKANA

Otadia aterpetxea zabalik mantentzeko eskaera kalera

Larunbatean, 12:30ean, kultur gune pareko zabalgunean itxieraren kontrako bilkura egingen da

ALTSASU

Nafarroako Gazteria Institutuak Otadia aterpearen etorkizuna berraztertzen duen bitartean hura itxita mantentzea erabaki du. Aterpetxea ixtearen kontra manifestua zabaldu dute hango langileek, eta harekin bat egin dute hainbatek, tartean Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko udalek. Haren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatu diote, batetik, "atzera botatzea itxierara zuzenduta zeuden neurri guztiak eta aterpetxea martxan jartzea". Eta, bestetik, "2022tik aurrera ere aterpetxea zabalik

mantentzea ohiko funtzionamenduarekin, beste alternatibarik aurkezten ez den bitartean".

Sinatzaileek nabarmendu dutenez, "Otadiako aterpetxeak Altsasura hurbiltzen ziren milaka laguni ematen zien zerbitzua". Azaldu dutenez, "2019an, guztira 10.000 ohe bete ziren aterpetxean". Eta, ondorioz, han ostatu hartutako bisitariak "tokiko merkataritzan eta ostalaritzan kontsumitzen dute; beraz, pandemia eta egungo kontsumo ereduaren ondorioz kaltetua dagoen sektore bat gehiago zigortzen du aterpearen itxierak".

DUELA 25 URTE...



Etxegarateko bikoizketa eskatzen

Altsasuko alkate Jose Anjel Agirrebengoak esana: "Maltzaga Urbina eta Leitzaran bezalako garraiobide azkar eta alternati- boen aurrean, Etxegarateko bikoizketa lehenbailehen egitea ezinbestekoa da. 2000. urterako egiten saiatu behar dugu". Agirrebengoia Nafarroako Gobernuarekin biltzekoa zen, Sakana mendebaldea abiadura handiko garraiobide nagusien lotura gune izaten segitzeko. Arabako Lautadako, Goierriko eta Sakanako alkateek helburua lortzeko plataforma sortu zuten.

"Ekipamendua enpresen zerbitzura dago"

AINTZANE IRIBERRI BERROSTEGIETA SGA-KO INDUSTRIA TEKNIKARIA

3D bidez pieza metalikoak inprimatzeko aukera ematen duen LMD teknologiako makina Dinabiden jarri dute. Enpresek haiek probatu ditzakete

IRURTZUN

Eraldaketa digitalerako guneak, Dinabidek, aurretik bazituen fabrikazio gehigarriko teknologiako makinak, hau da, 3D inprimaketa egiten zutenak. Material geruzak bata bestearen gainean jarriz sortzen da diseinatutako pieza fabrikazio gehigarriaren bidez. Orain artekoak plastiko eta antzeko lehengaiekin sortzen zituen piezak. Makina horiei guztiei beste bat gehitu zaie: 3D inprimaketa bidez pieza metalikoak fabrikatzeko LMD teknologiako makina. Makina hori Nafarroako Gobernuak finantzatu du 173.000 euroekin, eskualde garapenerako laguntza planen esparruan.

Zer ekarpen egiten dio Dinabideri LMD makinak?

Fabrikazio gehigarri unitatearen barnean metalezko teknologia izateak garrantzi handia du gure inguruko enpresa eta eragileendako. Orain arte ezagutzen genituen metalezko teknologiekin alderatuta merkea eta berritzailea da, beraz, merkatuan inpartu handia izan dezakeen prozesua dela uste dugu.

Gainontzeko 3D makinak bezala funtzionatzen du?

Orain arte polimeroekin lan egiten duten 3D inprimagailuak ditugu. Haiekin alderatuta alde



Irujo kontseilaria aurkezpenean.

handia dago. Polimeroekin inprimagailu bakoitzak bere berezitasunak ditu, batzuek hariarekin eraikitzen dituzte piezak, beste batzuek poliamida hautsa urtuz. Baina metalarekin fabrikatzea salto handia da, metalen izaerak, berotzean eta hoztean, oso desberdinak direlako, tentsioak agertzen dira, diseinuan kontuan hartu beharreko berezitasunak eta bestelako faktoreak daude. Egia esan, makina eta teknologia bakoitza mundu bat da...

Makina hori enpresek probatzerik izanen dute?

Jakina. Gure ekipamendu guztia enpresen zerbitzurako da. Iris, Nafarroako Berrikuntza Digitalerako Gunearen barruan, zerbitzua eskaintzen dugu: tresneria probatu, espermentatu eta eskarmentua izan, teknologia erosi baino lehen.

Noiz eta nola?

Gure web orriaren bidez, www.dinabide.com, harremanetan jarriz, eta hitzordua lotuz. Ateak irekita ditugu beti.

Ekoizpen sisteman eraldaketa dakarte makinak, ezta?

Bai, fabrikazio gehigarrian nabaria da, baina besteetan baita, automatizazioetik abiatuta, pertsonalizazioa, serbitifikazioa (zerbitzuetara jotzea), eta azkenengoz, inteligentzia artifiziala. Baina, betiere, teknologia lagungarria suertatzen denean du zentzua, bestela ez da egokia izanen.

Metalgintzako enpresa asko daude Sakanan. Baliagarria izanen zaie?

Jakina. Duela urte pare bat bertako enpresen azterketa batean oinarritutako apustua da Dinabide. Sakanako enpresen %67 metalgintzan aritzen da. Enpresetan baliagarria izan daitekeelakoan, haien beharrei begira garatu da proiektua, bestela ez luke zentzurik. Berrikuntza ekosistema bat eraiki nahi dugu.

Alimenta Navarra sariak Lacturale eta Harivenasari

Seigarren urtez Navarra Capital argitalpenak Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako Alimenta Navarra sariak banatu zituen. Harivenasak Iraunkortasunari saria jaso zuen. Enpresak olo deribatutak eta beste zereal batzuk ekoizti eta merkaturatzen ditu, eta Etxarrenen lantegia egiten ari da. Enpresako gerente Alberto Loi-

zatek jakinarazi zuenez, "lehen- gaia bertako nekazariena da, Etxarrenen lantegiaren inguruan 100 kilometroko erradioan daudenak". Etxarrenen lantegia 2022ko lehen hiruhilekoan martxan jarriko dute. Hura egiteko 45 milioi euro inbertitu dituzte.

Lacturaleko lehendakariak, Juanma Garrok, Enpresa Ibilbidearen eta Garapen Pertsonalaren saria jaso zuen. Agintariei eta enpresariei eskatu zien: "gogor lan egin lehen sektorekoek bitzita duina izan dezagun".

Baikor Worldwidek Nafarroako ETE saria jaso du

Nafarroako Enpresa Txiki eta Ertain onenaren saria jaso du hilabete honetan Arbizuko fundizioak. Merkataritza Ganberak eta Santander bankuak ematen dute saria, eta 44 hautagairen artea Baikor saritu zuten. Arbizuko lantegiak prezisio handiko osagaiak egiten ditu industriako hainbat sektorerendako. 32 langile ditu gaur egun.



Parte hartze prozesuan zehar arbizuarrak behin baino gehiagotan elkartu dira. ARBIZUKO UDALA

Eskola zaharra, kulturarako

Ikastetxe izateari 2019an utzi zion kale Nagusiko 1. zenbakian dagoen eraikina aurki kultur gune bilakatuko da. Hala erabaki dute arbizuarrak gariletik azarora iraun duen parte hartze prozesu baten bidez

ARBIZU

Arbizuko eskola izandako eraikinaren erabilera, herritarren beharrak eta iritziak kontuan hartuta, modu komunitarioan erabakitzeko prozesuak eman du emaitza: eraikina kultura jardueretarako erabiliko da. Ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, proiektzioak, kontzertuak... eta beste hainbat ekintza eta bilera egiteko leku izatea lehenetsi dute arbizuarrak.

Eskola izandako eraikinak solairu bakarra du, arkitektura oztoporik ez du eta "lan txikiak eginda aukera handiak eskaintzen ditu", azaldu du Arbizuko Udalak. Eskola zenak 299 metro karratuko azalera du. Gaur egungo banaketa honakoa da: hiru gela handi, bulegoa eta bi komun. Bulegoa bilera gela edo beharrezko materialak gordezko espazioa izan daitekeela

aurreikusi da parte hartze prozesuan. Bi gela handi elkarrekin konektatuta daude, eta haien aldamenen beste gela handi bat dago, sukaldea duena. Bi espazio horien arteko pareta bota edo ez aztertu daitekeela jaso da proiektuan. Pareta errespetatuz gero gelari erabilera jakin bat emanen liokete. Bestetik gelen arteko banaketak irekita utzi edo ixteko aukera eskaintzea ere mahai gainean jarri zuten. Eraikinak komunak beharko ditu eta egun dauden bietako bat egiteko horrekin segitzea aurreikusten da, bestean

"PARTAIDETZA PROZESU BAT EGITEN DEN LEHEN ALDIA IZANIK, BALORAZIO POSITIBOA EGIN DUGU"

bilera gela edo biltegia egin daitekeela aipatu zuten parte hartze prozesuan arbizuarrak. Bestetik, gela guztiak beharrezko material (mahai, aulki...) eta teknologia baliabideez hornitzea ezinbesteko jo dute.

Arbizuko Udalak, herritarren hitza kontutan hartuta, eskola izandako eraikinaren egokitzapenari lehenetsunez helduko dio, eraikuntza lanetarako diru-laguntzak eskatu, obrak batzuk egin, espazioa atondu eta ahalik eta epe laburrean eskola kultur espazio izan dadin.

Parte hartze prozesua

Estreinako aldia Arbizun horrelako partaidetza prozesu bat egiten dena. "Balorazio positiboa egin dugu, izan ere horrelako prozesuek herritarrek parte hartze kulturara hurbildu eta erantzunkidetasunean irabazten baita", argudiatu du Arbizuko Udalak.

Partaidetza prozesua aurrera eramateko Arbizuko Udalak Elhuyar enpresaren aholkularitza teknikoak izan du. Udalak etxeko lanak egin eta gero, ikasturte hasieran aktibatu zen, eskola zaharreko ateak ireki eta berau bisitatzeko aukera eskaintzearekin bat. Irailaren 17an eta 18an izan zen hori.

Aldi berean, Arbizuko etxe guztietara partaidetza prozesuaren berri ematen zuen gutuna eta eskola zaharrerako proposamenak egiteko galdetgia bi-

dali zituen udalak. Euskaraz, gaztelaniaz eta arabieraz zabalduko galdetgia 76 lagunek erantzun dute, %66 emakumeak izan dira eta gainerako %34 gizonak.

Galdetegi bidez jasotako proposamenak bildu eta partaidetza prozesurako osatutako Talde Eragileko kideek erantzunen lehen galbahe bat egin zuten. Horretarako ezarritako hiru baldintzak kontuan hartu zituzten: erabilera publikoa izatea, erabilera anitza ahalbidetzea eta ekonomikoki bideragarri izatea. Bestalde, lastailaren 23ko herri batzarrerako irizpideak zehaztu zituzten: espazioa ahalik eta pertsona gehienendako erabilgarria izatea; emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren bidean eragin positiboa izatea; desberdinen arteko onarpena kultura, genero, hizkuntza, sexualitate, gaitasun... dagokionez; hainbat belaunaldietako herritarrak erabiltzeko aukera izatea eta beren arteko baliabide eta ikaskuntzak elkarrean artean trukatzeko eremua izatea eta ingurumenarekiko errespetua eta konpromisoa izatea.

Eskolan bertan egin zen herri batzarrera 17 herritar joan ziren. Baldintza eta irizpideak kontutan izanik, arbizuarren proposamen zerrrenda eta eskolako planoan esku artean, eskola izandako eraikina kultur ekintzetarako espazio izatea adostu zuten.

Amets Arzallusen
solasaldia
Miñan bere liburuan
oinarriturik

Eguna: **abenduak 14** (asteatearekin)
Tokia: **ALTSASUko lortia kultur gunean**
Ordua: **9:30**ean

Sarrera kopuru mugatua egonen da.
Sarrerak eskuratzeko lortia kultur guneko txarteldiegira edo lortia.kultura.webgunera jo behar da.
Ekitaldia segurtasun neurri guztiak betez egiten da.
Doaneko ekitaldia izanen da.





Antolatzaileak:


Tratu txarren 18 salaketa aurten

Agorrila akabera arte ibarreko emakumezkoek jarritako salaketak dira. Emakumezko sakandarrek 2018tik 2021eko irailaren hasierara arte 115 salaketa jarri dituzte, tartean bederatzi adin txikikorenak daude

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Berdintasun Institutuak jakinarazi duenez, sexu indarkeriagatik polizia etxeetan hemezortzi salaketa jaso ziren agorrila akaberara arte, Guardia Civilak eta Foruzaingoak bederatzina salaketa jaso zituzten. Zazpi salaketa indarkeria fisikoa eta psikikoagatik jarri zituzten, bost indarkeria psikikoagatik, beste bost babes agindua urratzeagatik eta bat sexu indarkeriagatik.

Salatzaileetako bat adin txikikoa da. Bestalde, gutxienez sei kasutan seme-alabak zeuden tartean, bederatzi ume guztira. Herriei dagokienez, salaketa horien erdia Arakil aldean jarri ziren, sei Burundan eta hiru Sakana erdialdean.

Hileka

Ibeltzean bi salaketa izan ziren. Bikotekideak emandako tratu txar psikikoarengatik salaketa aurkeztu zuen 50 urtetik gorako burundak batek. Eta bestelako harreman bat duen baten aldetik tratu txar fisiko eta psikikoak jaso izana salatu zuen ibarraren erdialdean bizi den emakumezko batek, 30 urtetik gorakoa. Otsailean beste salaketa pare

bat izan ziren, Arakil aldeko bi emakumezko gazteek jarriak. Baten kasuan bere bikotekideak eragin zizkion tratu txarrak. Bestearenean ez zegoen inolako harremanik. Martxoan beste bi salaketa izan ziren. 50 urtetik gorako Arakil aldeko emakumezko batek tratu txar psikikoak salatu zituen. Eta 20 urtetik gorako burundak batek, berriz, tratu txar fisiko eta psikikoak salatu zituen. Bietan egungo bikotekideak izan ziren salatuak.

Apirilean lau salaketa jarri ziren. Emakumezko gazte batek salatu zuen bere bikotekideak babes agindua urratu zuela. Bestetik, 40 urtetik gorako Arakil aldeko batek tratu txar psikikoak salatu zituen, kasu horretan erasotzailearekin ez zegoen inolako harremanik. Gainera, bere bikotekide ohiek babes agindua urratu zutela salatu zuten Sakana erdialdeko eta Burundako emakumezko banak. Aurrenak 40 urte pasa ditu eta atzenak 20 urtetik gora ditu.

Maiatzean ere hiru salaketa jaso ziren. Bestelako erlazioa zuen

baten aldetik sexu indarkeria jaso izana salatu zuen Arakil aldeko emakume gazte batek. Babes agindua urratu izanagatik salaketa jarri zuen bere bikotekide ohiaren kontra Sakana erdialdeko emakumezko batek. Salaketa bera egin zuen Arakil aldeko beste emakumezko batek, hark bere bikotekidearen kontra. Bi salatzaileek 30 urtetik gora dituzte.


Garagartzaroan tratu txar psikikoarengatik salaketa jarri zuen Burundako emakumezko batek bere bikotekidearen kontra. Salatzaileak 60 urte baino gehiago ditu. Garilan bi salaketa izan ziren. Bikotekidearen aldetik indarkeria fisiko eta psikikoa jaso izana salatu zuen 30 urtetik gorako emakumezko batek. Bestelako erlazio bat izanik tratu txar psikikoak jaso izana salatu zuen 40 urtetik gorako emakumezko batek. Biak Arakil aldekoak dira. Agorrilean pare bat salaketa izan ziren Burundan. Bietan egungo bikotekidearen aldetik eraso psikiko eta fisikoak jaso izana adierazi zuten. Bi salatzaileek 40 urtetik gora dituzte.

112 Indarkeria jasaten duten emakumeendako telefonoa

Urteka

Sexu indarkeriagatik 115 salaketetatik 2018an %32,17 jarri ziren. 2019an salaketa kopurua %45 jaitsi zen. Baina, pandemiak sexu indarkeriagatik salaketa kopurua bikoiztea ekarri zuen, lau urteetako %34,78 izan zen. Aurtengoak salaketen %15,65 dira.


Salaketak urteka



Salaketak non

Emakumezko sakandarren %73,04 Foruzaingora jo du salaketa egitera. Gainontzeko %26,96k Guardia Civilera. Datuak aztertuta, polizia etxearekiko gertutasuna ere bada salaketa non jarri erabakitzeak arrazoia. Arakil aldeko 25 salaketetatik 14 Guardia Civilean egin dira eta 11 Foruzaingoan. Sakanako beste bi eskualdeetan alderantziz. Ibarren erdialdekoek jarritako 17 salaketatik 14 Foruzaingoan izan dira eta 3 Guardia Civilean. Eta Burundako 73 salaketetatik 59 foruzainek jaso dituzte eta 14 guardia civilek.

Non salatua



Salaketak udalerrika

0 55




Salaketak udalerrika

Hiru urte eta erdi pasatxo horietan Irañetan, Arruazun eta Ziordian ez da salaketarik izan. Gainontzeko hamabi udalerrietan salaketak izan dira: Altsasu %46,09, Irurtzun %16,52, Olatzagutia %10,43 eta Lakuntza %9,57, Arakil %4,35; Iturmendi %3,48; Arbizu %2,61; Etzarri Aranatz, Bakaiku eta Urdiain %1,74na eta Uharteko Arakil eta Ergoiena %0,87na.

Salatuarekiko harremana

Salaketen zatirik handienak emakumezkoen bikotekide ohiek, %43,48, eta egungo bikotekideek, %36,52, jaso dituzte. Bien artean salaketen %80 dira. Gainontzeko bostena horrela banatuta dago: bat ere erlaziorik ez zegoen, bestelako erlazio bat zegoen edo beste bizilagun batek eragindako indarkeria %5,22na da kasu bakoitzean eta familiako kide bat %4,35ean izan da salatu.


Salatuarekiko harremana



Biktimaren jatorria

Sexu indarkeria salatu duten hamar emakumezkoetik zazpik, %71,3, Sakanan sortu zen. Gainontzeko salatzaile sakandarren sorterriak honakoak dira: Latinoamerika %13,04, Afrika %9,57, Europa %4,35 eta Asia %1,74.

Biktimaren nazionalitatea



Seme-alabak tartean

Sexu indarkeriatatik jarritako 115 kasuen %51,31n haurren bat dute salatzaileak eta salatuak, kasuen %34,78an ez dago. Seme edo alaba bakarra dago %17,39an, bi salaketen %26,09an, hiru haur kasuen %6,96an eta lau seme-alaba %0,87an. Bestetik, salaketen %13,91n ez dago haurren presentziari buruzko daturik.


Seme-alaba kopurua



Salaketaren zergatia

Emakumezko sakandarrek lau sexu indarkeria mota salatu dituzte 44 hilabete horietan. Salaketa ohikoena, %44,35, indarkeria fisiko eta psikikoa jaso izana da. Indarkeria psikikoa pairatu dute salatzaileen %27,83k. Epaileek jarritako babes agindua urratzeagatik jarritako salaketak %20,87 dira. Azkenik, sexu indarkeriatatik jarritako salaketak daude: %6,96.


Salaketa motak



Biktimaren adina

Emakumezko salatzaileen adinari dagokionez, lehenik eta behin nabarmendu beharra dago bederatzia adin txikikoren salaketak daudela, %7,82. 18 eta 30 urteko emakumezkoek salaketen %30,43 jarri dituzte, 31-40koek eta 41-50koek %25,21na, 51-60koek %7,82 eta adinduek %3,47.


Adinaren arabera



Salatuen adina

Indarkeriatatik salatutako gizonzkoen %2,6 adin txikikoak dira. %21,73 18-30 urte artean dituzte, 31-40koak %27,82, 41-50 urte artean %26,95, 51-60 urte artekoek %13,04 eta 61 urtetik gora %3,47 dira.

Salatuaren adinaren arabera



Erasotzailearen jatorria

44 hilabete horietan sexu indarkeriatatik salatuen %66,09 sakandarra da eta salatutako gainontzeko gizonzko sakandarren jatorria honakoa da: Afrika %11,3, Latinoamerika %8,7, Europa %7,83, daturik gabe %4,35 eta Asia %1,74.

Erasotzailearen nazionalitatea



Elizak 102 ondasun immatrikulatu ditu

1900etik 2021era Elizak Nafarroan 2.952 ondasun bere izenean immatrikulatu ditu. Jabetza erregistroen bidez, immatrikulazioak eta lehenago immatrikulatutako ondasunen salerosketa eragiketak jaso ditu Justizia Departamentuak

SAKANA

1900. urteaz geroztik 2021era arte Elizak Nafarroan immatrikulatu dituen ondasunei buruzko datuak jakinarazi ditu Eduardo Santos Itoiz Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak. Zerrenda hori egiteko Eliza katolikoak Hipoteken Legearen 206. artikulua babestean bere hainbat izenekin jaso dituzte. Zehazki 1998. urtea baino lehen egindako immatrikulazioak, Nafarroako 3 eta 8 jabetza erregistroetan egindakoak eta 2008 eta 2015 urteen artean egindakoak.

Santos kontseilariak emandako zerrendan Sakanako 102 ondasun agertzen dira, orain arte publiko egindako zerrendetan baino askoz ere gehiago dira, denbora tarte handiagoa hartzen baitu. Elizak bere izenean jarritako ondasunen lehendabiziko zerrenda Nafarroako Ondarearen Aldeko Plataformak argitaratu zuen 2008an. Han 66 ondasun zerrendatu zituzten, kontseilariaren zerrendan daudenak baino %35,29 gutxiago. Espainiako Gobernuak aurten zabalduko zerrendan Iruñeko elizbarrutiak bere edo herrietako parrokien izenean jarritako 59 ondasun daude, azken zerrendan baino %42,15 gutxiago.



Elizak immatrikulatutako ondasunak

Udalerrria	1900 eta 2021 artean	2008ko zerrenda*	2021eko zerrenda**
Arakil	29	14	12
Irurtzun	2	1	1
Irañeta	6	3	3
Uharte Arakil	12	13	8
Arruazu	2	2	2
Lakuntza	4	3	3
Arbizu	5	2	2
Ergoiena	8	8	8
Etxarri Aranatz	7	3	3
Bakaiku	3	3	3
Iturmendi	5	4	4
Urdiain	4	4	4
Altsasu	6	2	2
Olatzagutia	6	2	2
Ziordia	3	2	2
Sakana	102	66	59

OHARRA: *NAFARROAKO ONDAREAREN ALDEKO PLATAFORMA
**ESPAINIAKO GOBERNUA

Gasteiz-Plazaola bizikleta biderako finantziazioa lotuta

Espainiako aurrekontuak onartzeko bozketa atzo ziren egitekoak. Haren tramitazioan EH Bilduk Sakanarekin lotutako bi egitasmorendako finantzazioa lortu zuen. Alde batetik, Gasteiz eta Plazaolako bide berdea lotuko dituen milioi bat euroko zuzenketa bat txertatzea erdietsi du EH Bilduk, Agurain eta Irurtzun bizikleta bide baten bitar-

tez batuko dituen. Bide hori lehendik eraikita zeuden zatiei lotuko zaie, eta horrek Araba eta Nafarroa artean bizikleta bide berdea sortzea ahalbidetuko du, 2022ko aurrekontuen bidez gauzatuko dena. Eta, horrekin batera, Burgos, Gasteiz, Iruñea eta Zaragoza linean prestazio handiko trenen zirkulazioerako eta trafikoko mistorako hobekuntza eta egokitze lanen azterlan bat prestatzea. Azkenik, 2022 bukaerarako ETB3 Nafarroa osoan ikusgai egonen da.

Geroa Bai koalizioak hamargarren urteurrena bete du

Geroa Bai 10. urteurrena larunbatean ospatu zuen. Koalizioatik adierazi zuten hamar urtetan elkarrizketaren aldeko apustua egin dutela, eta, "anbizioarekin, kontsentsurako ahalmena" erakutsi dutela. Haren irudiko, jarrera hori ezinbestekoa da autogobernuaren defentsan. Geroa Bai indartzeko lan egiten dutela gaineratu zuten.

Mintzakideren aparteko jarduera eskaintza hasi da

Euskara praktikatu nahi dutenendako goiza pasa igandean, 09:30ean, Etxarriko kanpineko sarreratik

SAKANA

Sakandarrek ibarra ezagutzeko ibilaldia antolatu zuen Mintzakidek igandeko. Zehazki, Etxarri Aranazko "altxorrek ezagutzera" gonbidatu du. Beheko basoan egingen den ibilaldiaren bidez zista, harrobi bat, txondor plaza eta errotaria ezagutzeko aukera izanen dute ibiltariak. Ibilaldiaren helburu nagusia: oinezkoek dakiten euskara praktikan jartzea. Horrela, euskara jakin baina hitz egiteko gaitasun edo ohitura gutxi duten pertsonen hitz egiteko aukera eman nahi zaie. Mintzakidek euskara praktikatu nahi duten pertsonak eta dakien bat elkartzen ditu, astean behin, ordu batez. Inte-



Aurrekoan Arakilen izan ziren. MINTZAKIDE

resa dutenek 600 482 024 telefonora hots egin edo Whatsapp mezua bidali. Dohainik da.

Oraingoan dauden Mintzakide taldeak

Herria	Eguna	Ordua	Tokia
Irurtzun	Asteartea	18:00	Iratxo elkarte
	Ostirala	09:00	Pikuxar
	Ostirala	19:00	Pikuxar
Lakuntza	Osteguna	18:00	Tokiz txandakutzen da
Arbizu	Osteguna	18:00	Juanito taberna
Iturmendi	Astelehena	19:00	Aritzaga elkarte
	(bi astean behin)		
Altsasu	Astelehena	16:00	Koxka
	Osteguna	10:00	Kukuerreka elkarte
	Osteguna (bi astean behin. Euskalkia praktikatzeko)	20:00	Lezea
Ziordia	Ostirala	09:00	Kaixo
	Ostirala	16:00	Liburutegia

Korrika moda Sakanan da

AEK-k antolatzen duen erreleboak lasterketa, Korrika, aurten ez da egin pandemiagatik. 2022an Amurrio eta Donostia lotuko ditu, martxoaren 3tik apirilaren 10era. Korrikak *Hitzekin* leloa aukeratu du. Ohi bezala, AEK-k Korrika arropa jarri du salgai. Hura Altsasuko Itsasi euskaltegian eskuratu daiteke, edo www.korrika.eus webgunean.



SAKANAKO AEK



Erremonte jokaldi ikusgarriak espero dira Irurtzunen. E-REMONTA BETI EUSKAL JAI

Binakako Erremonte Txapelketa Irurtzunera heldu da

ERREMONTA Ostiralean eta larunbatean txapelketako partida bana hartuko du Bi Aizpe pilotalekuak, 19:00etan

Goi mailako erremontistak gertutik ikusteko aukera izango dugu asteburuan Irurtzunen, E-Remonte Beti Euskal Jai taldeak antolatutako Binakako Txapelketa Profesionaleko bi partida Irurtzunen jokatu baitira, Irurtzongo Udalak lagunduta.

Erremontea sustatzea

Txapelketan lau bikote ari dira parte hartzen: Uterga-Ion, Matxin III.a-Otano, Ezkurra II.a-Saldias eta Aldabe-Azpiroz. Hasieran euren arteko ligaxka jokatu dute, eta ligaxkako bi bikote onenek Labriten jokatu dute final handia, abenduaren 17an. Nafarroako Kirol Institutuko zuzendari Miguel Pozuetak azaldu duenez, txapelketaren helburua erremontea sustatzea da.


Lehen jardunaldia Lodosan jokatu zen aurreko asteburuan, eta bigarrena Irurtzunek har-

tuko du. Bi jaialdi izanen dira, bata ostiral arratsaldean eta bestea larunbat arratsaldean jokatu direnak. Jaialdi bakoitza 30 tantotara jokatu den partida batek zabalduko du, eta ondoren Binakako Erremonte Txapelketa Nagusiko partida bana jokatu dira, 35 tantotara.

Gaur, ostirala, Beñatek eta Barricartek Jabalera eta Garces dituzte aurkari hasierako partidari. Ondoren, Binakako Txapelketan, Ezkurra II.ak eta Saldias Aldabe eta Azpiroz izanen dituzte aurkari. Bihar, larunbata, Otxandorenak eta Agirrezabalak Zeberio II.aren eta Barricarten kontra jokatu dute partidak zabalduko du jaialdia, eta Binakakoan Matxin II.ak eta Otanok Utergaren eta Ionen kontra jokatu dute. Elizondon jokatu da hirugarren jardunaldia, abenduaren 11ko asteburuan.

Ongay finalerdietan

PILOTA Asteazkenean Huarteko Lau eta Erdiko Pilota Txapelketako final laurdenak jokatu ziren eta Irurtzun pilota klubeko Alberto Ongay pilotari satrustegiarrak finalerdietara sailkatzea lortu zuen, Oiarpe taldeko Ugalderi 12 eta 22 irabazi eta gero. Aurrera egin zuten beste pilotariak Espinal (Anso 6 tantotan utzi zuen) eta Yoldi (Elizalderi 22 eta 18 irabazita) dira.



ARTXIBOA

Resano, Euskal Herriko Lehen Mailako finalera

AIZKORA Finala Tolosako Beotibar pilotalekuak hartuko du igandean, 12:00etan, eta sei aizkolarari lehiatuko dira. Iban Resanok Nafarroako Lehen Maila galdu zuen aurreko ostiralean Donezteben, eta arantza kentzeko aukera du

Maidar Betelu Ganboa DORRAO

Euskal Herriko Herri Kirol Federazioak antolatutako Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako finala igandean jokatu da, 12:00etan, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Atzo, osteguna, egin zuten aurkezpena, eta bertan izan ziren finalistak eta antolatzaileak. Jakinaenez, joan den urtean Lehen Mailako zenbait aizkolarik Euskal Herriko Aizkolarari Elkarteak sortu zuten eta elkarte horrek antolatuta jokatu zen, igandean, Bilbao Arenan, Sherpa.ai Aizkolarari Txapelketa Nagusia, Iker Vicentek irabazi zuena. Euskal Herriko Herri Kirol Federazioaren eta aizkora elkarte berriaren arteko harremanak ez dira konpondu, eta, horregatik, Bigarren Mailatik igotako aizkolariek jokatu dute aurtengo Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako finala.

Sei aizkolarari izango dira gutirtira: Hodei Ezpeleta Lopetegi,



Finalean ariko diren sei aizkolaria. EUSKAL HERRIKO HERRI KIROL EN FEDERAZIOA

Luis Maria Txapartegi Gurrutxaga, Xabier Zaldua Alberdi, Oier Kañamare Ibarra, Iban Resano Igoa eta Jose Antonio Etxeberrria Osakar.

Iban Resano aurreko ostiralean Donezteben Oier Kañamarens

kontra Nafarroako Lehen Mailako Aizkora jaitsiera kanporaketa galtzetik dator -Kañamaresek 22 segundo ateraz zizkion-, eta aukera ederra du egoerari buelta eman eta Euskal Herriko Lehen Mailari eusteko.



TRIKU TRAIL

Erronka Munarrizendako eta Zarranzendako

MENDI LASTERKETAK Sakanako Trail Estazioa aurkezteko Triku Trail taldeak Etxarrin antolatutako erronka mundiala oso polita izan zen. Igor Artiedak eta Ander Iñarrak betiko noranzkoan osatu zuten Triku Trail ibilbidea, eta Aritz Munarrizek eta Xabier Zarranzek,

aldiz, kontrakoan. Ekimenak ikusmina sortu zuen, eta makina bat apustu eta porra egin ziren. Munarriz eta Zarranz izan ziren azkarrenak (2:12:35), Artiedari eta Iñarrari 2 minutu atereaz (2:14:59). Porra Harriet Artiedak irabazi zuen.



Adrian Ruiz eta Jose Angel Claveria izan ziren 2019ko txapeldunak. UTZITAKOIA

Irurtzun-Arakilgo VII. Frontenis Txapelketa ate joka

FRONTENISA Gehienez 64 bikoterendako tokia dagoenez, izena lehenbailehen ematea aholkatu du antolakuntzak

Ilbeltzaren 8an jokatuko da Irurtzun-Arakilgo VII. Frontenis Txapelketa, baina izena ematea zabalik dago. Asier Galarza Iriarte antolatzaileak aipatu duenez, txapelketak arrakasta itzela izan zuen hasieratik, eta 60 bikotetik gora parte hartzen dute, Nafarroatik kanpo etorritako zenbait bikotek baita ere. Aurten ere partaidetza handia espero da, txapelketa frontenis jokalarien egutegian dagoelako, eta, horregatik, interesatuei lehenbailehen izena eman dezaten eskatu du, 64 bikoterendako tokia egongo baita (699 453 490).

Sari ederrak

Izena ematerakoan bikote bakoitzak 30 euro ordaindu behar ditu, eta soilik txapelketan aritzeagatik trukean txapelketako kamisetak eta babesleek eskainitako produktuak jasoko ditu. Lacturale eta Irurtzungo eta Arakilgo Udalak dira txapelketako babesle nagusiak, eta zenbait komertzio ere laguntza ematen dute. Sariei dagokienez, ez dira nolanaikoak. Txapeldunek 800 euro eta txapelak jasoko dituzte, txapeldunordeek 400 euro, eta hirugarrenek 100 euro.



ARTXIBOIA

Arakilgo Mendi Martxa egitera

MENDIA Iratxo Elkarteak eta Arakilgo Udalak Arakilgo Mendi Martxa antolatu dute igandean eta bertan parte hartzera animatu dituzte sakandarrak. Hitzordua 9:00etan jarri dute Irurtzungo plazan. Izurdiagarantz abiatuko dira, Errotzera heldu eta Urritzolako bidea hartzeko. Ekai, Zuhatzu eta Satrustegiraino iritsi eta gero, Ihabarren despedituko da martxa.



Zabaletaren kontra aritu zen Ezkurdia lehen jardunaldian, eta bigarrenean Martija izango du aurkari. ASPE

Ezkurdia eta Martija aurrez aurre

PILOTA Binakako bigarren jardunaldian Ezkurdia eta Tolosak Altuna eta Martija dituzte aurkari asteartean Eibarren. Igandean Elezkano-Zabaletak Irribarria-Rezustaren kontra jokatuko dute eta, Promozioan, Bakaikoa-Elizegik Alberdi eta Uriondo dituzte aurkari

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Hasi da pilota txapelketarik luzeena. Oraindik 13 jardunaldi geratzen dira aurretik eta guztia dago erabakitzeko, baina Danel Elezkanok eta Jose Javier Zabaletak, egungo txapeldunek, hautagai nagusien artean egongo direla erakutsi dute jada, nahiz eta Etxarrengo atzelariak bere unerik onenean ez dagoela aitortu. Sustoa tarteko -Ezkurdiari ezkerrekoak ihes egin zion eta pilotak Elezkano bete-bete harrapatu zuen-, 22 eta 7 hartu zituzten mendean Joseba Ezkurdia eta txapelketan mustu den Xabier Tolosa. Elezkano izan zen onena, baina Zabaletak ere ongi aritu zen. Ezkurdia eta Tolosak ez dute ondorio txarrik atera behar, partidaren lehen zatian oso ongi aritu zirelako. Beraz, ikasi eta asteburu honetan jokatuko den bigarren jardunaldian zerotik hastea, ez dute besterik.

Jokin Altunak eta Julen Martijak Bartzelonan hasi zuten

txapelketa, ikusgarri aritu ziren Iker Irribarriaren eta Beñat Rezustaren kontra. Bi ezkerrek maisuki jokatu zuten, Irribarriak ezarritako erritmora, eta 11 tantotan utzi zituzten Altuna eta Martija.

Igandean lehen jardunaldiko bi irabazle elkarren kontra ariko dira Azkoitian: Elezkano-Zabaleta eta Irribarria-Rezusta. Elezkano eta Irribarria izan ziren lehen jardunaldian euren norgehiagoketan gailendu ziren pilotariak, eta borroka gogorra espero da. Eta atzeko koadroetan, zer esanik ez. Zabaletaren eta Rezustaren lehiak emango du zeresana.

Asteartean, azaroak 30, elkarren kontra ariko dira Ezkurdia

ZABALETAK BERE UNERIK ONENEAN EZ DAGOELA AITORTU DU, BAINA TXAPELKETA IRABAZIZ HASI DU

eta Martija, San Andresetan murgilduta beharko lukeen Eibarren. Bi bikoak galtzetik datoz eta lehenengo puntua eskuratzeko beharrea da. Hortaz, lehia estua espero da.

Beste bi partidei dagokienez, gaur, ostirala, Urrutikoetxeak eta Arangurenak Jaka eta Mariezurren II.a izanen dituzte aurkari Galdakaon, eta, larunbatean, Labriten, Lasok eta Imazek Peña II.aren eta Albisuren kontra jokatuko dute.

Promozioa

Joanes Bakaikoa etxarriarrak hasiera ona eman dio Promozioko Binakako Pilota Txapelketari. Larunbatean, Labriten, Bakaikoa eta Elizegik 22 eta 13 irabazi zieten Larrazabali eta Salaberri II.ari, eta euren lehen puntua lortu zuten, itxura bikaina emanaz. Gaur, ostirala, Asteasun, Bakaikoa eta Elizegik Alberdi eta Uriondo izanen dituzte aurkari 22:00etan hasiko den jaialdian.



Palista etxarriarrak ekainean Etxarri Aranatzeko Emakume Master Cup Pala Torneoako partidari.

Palistak Sakanara begira

PALA Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoa bihar, larunbata, hasiko da, Etxarri Aranatzeko. 65 palista lehiatuko dira, tartean Euskal Herriko onenak, eta bi mailatan jokatu da, Gaztetxoek eta Helduen mailan

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Etxarri Aranazko Gure Pilota Klubak emakumezkoen pala sustatzeko lan nekaezina egiten jarraitzen dute, eta horren isla, aurten Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoa jokatu da, hainbat entitateen laguntzarekin. Beraz, 17 urte luze emakumezkoen pala sustatzen, eta urte askotarako izan dadila.

Bi maila Torneoa bi mailatan jokatu da: Gaztetxoak (Tximeletak,

"GURE TXAPELKETAK SEKULAKO MAILA DU, ETA URTETIK URTERA GORA DOA"
M. ANGEL ARISTORENA

Pottokak, Usoak, Kattagorriak eta Txitoak) eta Helduak (Lehen Maila eta Eliteak). Gaztetxoek mailan 40 palista inguru lehiatuko dira; palista harrobi bikaina dagoenaren seinale. Helduen mailan, ohienez, egungo palistarik onenak lehiatuko dira. Partidak azaroko eta abenduak asteburuetan jokatu dira, gaztetxoek mailakoak larunbat goizetan, Lehen Mailakoak larunbat arratsaldetan eta Elite mailakoak igande goizetan edo palisten agendak ahalbidetzen duenean. Final handiak Etxarri Aranazko Euskal Herriari pilotalekuan jokatu dira, abenduaren 25ean eta 26an.

Eliteak eta Lehen Mailakoak Elite mailako bikoteak ondokoak dira: Irati Saragueta-Ariane Arrieta, Maidar Ardanaz-Miriam Arrillaga, Uxue Murillo-Itsaso

Erasun, Amaia Espinal-Maidar Mendizabal, Leire Galdos-Maidar Huici eta Amaia Irazustabarrena-Irati Igoa. Lehen mailakoak, hurrenak: Maidar Saralegi-Ane Kerejeta, Uxue Agirre-Olaia Eizagirre, Olatz Zulaika-Narrea Otxoa, Enara Mazizior-Izar Parot, Saioa Bengoetxea-Paula Gorostiaga, Miren Errea-Maitane Villanueva eta Nahia Eizmendi-Andrea Lusarreta.

Maila izugarria Beste behin, Sakanakoa goi mailako txapelketa izango da. "Federazioek antolatutako txapel-

"FABORITOAK? IZEN HANDIAK DAUDE, BAINA PARTIDAK JOKATU BEHAR DIRA"
M. ANGEL ARISTORENA

ketaz aparte gure txapelketa Euskal Herriko onena denik ez dizut esango, baina bai lehendabiziko hiru onenen artean dagoela" dio Etxarri Aranazko Gure Pilota Eskolako pala arduradun Miguel Angel Aristorena Lakuntzak. Aipatutakoei kategoriatan txikitako 40 palista inguru gehitu behar zaie.

Aristorenaren esanetan "maila izugarria" izango du Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoak. "Urtero esaten dut berdina, gure txapelketak sekulako maila duela, baina egia da. Eta urtetik urtera gora doa. Hunkitzen naiz. Palistak gure txapelketara oso gustura etortzen dira, bikote orekatuak egiten saiatzen garelako. Normalean gure txapelketako partidak oso estuak izaten dira, tanto diferentzia gutxiak, oso lehiatuak. Euskal Herriko palista finenak daude, eta batzuk kanpoan geratu behar izan dute, toki faltagatik, azpiegiturak ez duelako gehiagorako ematen" azaldu du.

Oso estua

Faboritoak zeintzuk diren galdetuta, ez du batere argi. "Izen handiak daude, zerrenda begiratzearekin batera ikusten da. Izena gauza bat da, baina gero partidak jokatu behar dira eta uste dut oso estu egongo dela". Sakanakoa txapelketa irekia izango da, eta palaz gozatzera eta palistak animatzera hurbiltzeko deia egin du antolakuntzak.

Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Torneoa

Asteburuan torneoko lehen jardunaldia jokatu da. Larunbat goizean gaztetxoek mailako partidak jokatu dira Etxarri Aranatzeko.

Azaroak 27, larunbata, 16:00etan, Etxarri

- **Lehen Maila:** Olatz Zulaika-Narrea Otxoa / Enara Mazizior-Izar Parot
- **Lehen Maila:** Maidar Saralegi-Ane Kerejeta / Uxue Agirresarobe-Olaia Eizagirre

Azaroak 29, astelehena 19:00etan, Etxarri

- **Eliteak:** Amaia Espinal-Maidar Mendizabal / Amaia Irazustabarrena-Irati Igoa

FINAL HANDIAK ABENDUAREN 25EAN ETA 26AN JOKATUKO DIRA, ETXARRI ARANATZEN



Azken entrenamenduak

Etxarri Aranazko pilotalekuan mugimendu handia egoten da ia arratsaldero, baina azken aste hauetan gogotsuago dabilza Gure Pilota eskolan trebatzen ari diren palistak, asteburuan hasiko den txapelketarako prestatzen.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

13. JARDUNALDIKO EMAITZAK

River Ega - Lagun Artea 3-3

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1 Lerinés 25

6 Lagun Artea 13

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:45 Lagun Artea - Lerinés (Zelai Berri)

Lagun Arteak liderra hartuko du

Lagun Arteak puntu bat ekarri zuen Andosillatik, eta etzi Lerinés hartuko du.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lourdes - Altsasu 7-0

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1 Mulier 27

10 Altsasu 0

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

12:30 Altsasu - Mulier (Dantzaleku)

Irati Igoaren Mulier Altsasun

Altsasuk liderra hartuko du igandean, Irati Igoa etxarriarraren Mulier taldea.

FUTBOL PREFERENTEA

11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - Beriain 1-4

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Injerto 27

12 Etxarri Aranatz 13

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Ardoi - Etxarri (El Pinar 1)

Etxarrik Zizurren jokatu du

Beriainen kontrako partida ahaztu eta Ardoiren kontrakoan du burua Etxarrik.

FUTBOL ERREGIONALA

10. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Aurrera 1-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1 Aurrera 23

4 Altsasu 18

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

18:00 Gazte Berriak - Altsasu (Antsoain)

Altsasuk Gazte Berriak du arerio

Liderraren kontra galdu eta gero, Altsasuk garaipenaren bidea berreskuratu nahi du.

Berdeak, derbirako gogotsu eta prest

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotak Ribera de Navarraren kontra jokatu du derbi nafarra, larunbatean, 18:30ean, Tuteran. Levanteren kontra irabazita, sentsazio bikainekin daude irurtzundarrak. Asteartean Kopako partida dute O'Parruloren kontra

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Baja oso garrantzitsuak ditu Osasuna Magna Xotak, baina larunbatean Ribera de Navarra taldearen kontra jokatu duten partidarako animatuta eta gogotsu daude Imanol Arregi Sarasaren mutilak. Izan ere, dua- la astebete Levanteren kontra hankaz gora jarritako partida irauli eta garaipen oso garrantzitsua lortzeko gai izan ziren (2 eta 1), eta jokalariek gazteek ere protagonismo handia izan zuten.

Ezin zaie gehiago eskatu

Imanol Arregi entrenatzaileak Levanteren kontrako garaipena "meritu handikoa" izan zela uste du, bajak direla eta taldea bizitzaren ari den egoera kontuan hartuta. Ildo honetan, Tony Escribanori asteazkenean egin zioten lotailu haustura konpontzeko ebakuntza. "Arazo asko dauzkagu, baina taldea ikusgarri dago. Oso ongi lehiatu gara, eta jokalariei ezin diet gehiago



Roberto Martil kapitainak sartu zuen Levanteren kontrako garaipenaren gola. XOTA

eskatu. Minimoetan gaude, jokalariek partidak aurrera ateratzeko hustutzen ari dira eta beste behin, partida handia jokatu zuten" nabarmendu du.

Larunbatean ahalegin bera egin beharko du taldeak. Derbi

nafarra dago jokoan, sailkapenean seigarren dagoen Osasuna Magna Xota (12 puntu) eta sailkapenean zazpigarren den Ribera de Navarra (12 puntu) taldeen artekoa. Derbia beti da derbia, baina bi taldeak arerio

zuzenak dira, eta sailkapeneko postua jokoan egoteak saltsa gehiago jarri dio partidari.

Talde bat izatea zer den

Roberto Martil Fernandez kapitain irurtzundarrak sartu zuen Levanteren kontrako bigarren gola, garaipenarena. "Pozik nago, batez ere taldearengatik. Gola sartzea gustagarria da, baina garaipena sekulakoa da. Etxean geunden, gure zaleekin, eta puntuatzeko gogotsu geunden" aitortu du. Guztiaren gaineratik jokalariek ematen dutena jarri du balorean, eta talde bat zer den modu ezin hobean azaldu du. "Pasada bat da, aldagelan guztiak gara garrantzitsuak. Gazteenak minutu asko jokatzeko ari dira eta asko ari dira ikasten eta ematen. Garrantzitsuenak da eurek asko ematea, eta minutu gehien jokatzeko duginok maila onean egotea. Horri deitzen zaio talde bat izatea" nabarmendu du. Xotak etxean hiru puntuak lortzeko beti borrokatzen duela gaineratu zuen, "etortzen dena etortzen dela". Eta baita kanpoan ere.

Asteartean Ferrolen

Larunbatean Tuteran ligako derbia jokatu eta gero, Galizian jarri beharko du burua Imanol Arregiren taldeak. Izan ere, Osasuna Magna Xotak Errege Kopako partida du jokoan asteartean, 20:00etan, O'Parrulo Ferrol taldearen kontra.

Imanol Irurtzunen finala

FUTBOLA Asteartean Espainiako Futbol Federazioko 2021eko Kopako finala jokatu zen eta Cordobak 1 eta 0 irabazi zion Guijuelori, 15.000 zaleen aurrean. Final aipagarri hori Imanol Irurtzun Artola arbitro ihabardarrak epaitu zuen, Roberto Dominguez eta Pedro Coboren laguntzarekin. Irurtzunendako ere partida berezia izango zen, zalantzarik gabe.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 26

BAKAIKU A25. Emagin informazio gunea.

Sakanako Mank-eko Berdintasun zerbitzuak antolatuta.
17:00etan, frontoian.

ALTSASU Gazte agenda: Sexgunea.
12-16 urte, 17:30etik 19:00etara;
16-30 urte, 19:00etatik 20:30era,
Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Bideak haurrentako ipuin ilustratuaren aurkezpena Iker Uriberekin eta Joana Zigandarekin.
18:00etan, Pikuxarren.

ETXARRI ARANATZ *Porno & Afrodita (edo I love #gorkaurbizu)* BenetanBe konpainiaren antzezlan. 19:00etan, kultur etxean.

BAKAIKU A25. Birritan Bortxatua antzezlan euskaraz. 19:00etan, frontoian.

ALTSASU Azken ostirala: *Preso eta iheslariak etxera* elkarretaratzea.

Sarek deitutako elkarretaratzea.
19:30ean, udaletxearen parean.

SAKANA Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Bakaiku. Azken ostirala: *Preso eta iheslariak etxera* elkarretaratzea. Sarek deitutako elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

OLAZTI *Con-cierto sentido* Richarsonekin. Punk gaua.
23:00etan, Barandi tabernan.

LARUNBATA 27

ETXARRI ARANATZ Haurren aurrean helduak heldu: Etxarriko erraldoiak. Ondoren, margotzeko txokoa.
12:30ean, udaletxe aurreko plazan.

ALTSASU *Otadia ez itxi. Altxatu* elkarretaratzea.
12:30ean, lortia zabalgunean.

ARBIZU Bertso bazkari dastaketa. Neguko kartaren aurkezpena eta dastaketa. Bertsolariak: Amets Arzallus eta Onintza Enbeita. Gai jartzailea: Xabier Terreros.
14:00etan, eko-kanpinean.

LAKUNTZA *Bideak* haurrentako ipuin ilustratuaren aurkezpena Iker Uriberekin eta Joana Zigandarekin.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU A25. Gazte agenda: *Ene bada ene badu* emanaldia Kontukantoreien eskutik.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Abel Aparicioren *¿Dónde está nuestro pan?* liburuaren aurkezpena.
19:00etan, Kukurreka elkartearen.

OLAZTI *Feas* Teatro Makabro konpainiaren antzezlan.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Nueva York en un poeta* Alberto San Juanen antzezlan.
19:30ean, lortia kultur gunean.

OLAZTI *November Fest: Morti, Ver Brothers, Kulimeyr/Buli, Kemarrina eta Ana Bea.*
22:00etatik aurrera, Maisuenea gaztetxean.

IGANDEA 28

ALTSASU *Lete – Atondo – Otxobi – Oskia* edo Bizkai ibilbidea egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.
08:00etan, egoitza.



ALTSASU *Loizuko gizakia: espeleologia ezagutzen* erakusketa.
Azaroaren 28ra arte. Astelehenerik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan zuzeneko baina ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik 19:30era. lortia kultur gunearen erakusketa gelan.

IRURTZUN Arakilgo mendi martxa: Irurtzun, Izurdiaga, Errotz, Urritzola, Ekai, Zuhatzu, Satrustegi eta Ihabar.
09:00etan, plazatik.

ETXARRI ARANATZ Etxarriko altxorrek ezagutzuz: Trikuharri berria, harrobia, txondorra, errotaria.
Sakanako Mintzalagunak taldeak antolatuta.
09:30ean, kanpineko goiko aparkalekuan.

OLAZTI Tor eta Txoborro magoak: *Aztikeriak* ikuskizuna.
17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 29

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen parean.

ALTSASU Altsasuko Musika eta Dantza Eskolaren ikasleen kontzertua.
18:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 30

ALTSASU *Jokoa eta jostailuak:*



ALTSASU Altsasu BHI, Sakana LHI, Korazonistak eta Iñigo Aritza ikastolako DBH 3. mailako ikasleek egindako *Sexualitatea* erakusketa.
Azaroaren 28ra arte.
17:00etatik 21:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Mediterraneo gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 19: 19:30
Igandea 21: 19:30

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Petite Maman zineforum filmaren emanaldia
Igandea 21: 19:30

Familian jolastuz tailerra.
2 eta 5 urte bitarteko haurrentzako.
17:00etatik 19:00etara, lortia kultur gunean.

ZIORDIA A25. *Pronoia klown* antzezlan Virginia Imazen eskutik. Gaztelaniaz.
Sakanako Mank-eko Berdintasun zerbitzuak antolatuta.
17:30ean, udaletxean.

ZIORDIA A25. Emagin informazio gunea.
Sakanako Mank-eko Berdintasun zerbitzuak antolatuta.
19:00etan, udaletxean.

ASTEAZKENA 1

ALTSASU *Jokoa eta jostailuak:*
Jostailu erakusketa.
17:00etatik 19:00etara, lortia kultur gunean.

Bazkide Zozketa

IRAILEKO SARIAK

1. SARIA

Eider Petriati Razki (Arbizu)

2. eta 3. SARIAK

Antxon Ramirez de Alda Fernandez (Altsasu)
Maria Victoria Andueza Vicado (Etxarri A.)
Jone Lizarraga Goikoetxea (Lakuntza)

Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

LUR SAILAK

SALGAI

Lursail urbanizatu salgai Etxarri Aranatz: 235 m² ditu. San Adrian kaleko 2.2b. Poligonoa 1 lurzatie 860 azpiluzatie 1). Interesatuak 660 710 966 tfnora deitu.

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 tfnora.

Etxe adosatua salgai: Etxarri Aranazko Aldapaso auzoan. Interesatuak 664 781 794 tfnora deitu.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Uharteko Arakilgo Gazte Txokoa lan egiteko begiralea: Udalak kontratako duen lanpostu horretan interesa baduzu Altsasuko Nafarroako Lan Zerbitzuko bulegoan izena eman azaroaren 27a baino lehen. Kontutan izan langabe gisa izena emanda egon beharko duzula.

IKASTAROK

Kontatu nirekin! Txakur-ekin aisialdi inklusibo: 6-12 urte bitarteko Altsasuko haurrei zuzendua, abenduaren 27 eta 28an. Izen ematea abenduaren 20ean amaitzen da. Informazioa eta izen ematea psicologia.biakbat@gmail.com edo 646 123 768 tfnora.

BikoTeka tailerra Iruñean: Liburu ilustratu bat nola pentsatu, idatzi, sekuentziatu, marraztu eta argitaratu daitezkeen landuko da lau egun eta erdiko ikastaro trinko honetan, idazle-illustratzaileak bikoteka jarrita. Idazle eta ilustratzaileak parte hartu

dezaketek, bakarka zein binaka. Bakarka aurkezten direnei bikotea aurkituko diegu, posible den heinean. Parte hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar eta aurkezten diren hautagaien artean egile berriak lehenetsiko dira. Parte hartzaileek euskaraz jakin behar dute. Galtzagorri elkarteko bazkide izatea baloratuko da. 2022ko urtariraren 24tik 28ra, Iruñeko Kondestable Jaurregian. Izena emateko epea azaroaren 26an amaitzen da. Informazio gehiago galtzagorri@galtzagorri.eus emailera idatziz, 943 471 487 tfnora edo www.galtzagorri.eus web orrian.

LEHIAKETA

Kaixomaitia Kontaketa Erotikoen Lehiaketa: Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute 18 urte edo gehiagoko herritarrek, eta izen-abizenak, posta elektronikoa eta harremanetarako telefono bat zehaztu beharko ditu. Parte hartzaile bakoitzak nahi dituen beste lan aurkezteko aukera izango du. Kontaketen luzera 6.000 eta 20.000 karaktere artekoa izango da. Idazlanak euskaraz idatziak eta beste inon argitaratu gabek izango dira. Lanak aurkezteko epea 2021eko abenduaren 31 arte izango da, www.kaixomaitia.eus webgunearan bitartez. Ebazpena 2022ko otsailaren 28an jakinaraziko da, 8 finalistentzat saria egongo da; irabazleak 1000 euroko saria, Elkar argitaletxearen liburu sorta eta 100 euroko Elkar liburu dendetarako opari txartela. Informazio gehiago www.kaixomaitia.eus.

OHARRAK

Etxarri Aranatzko Udalak egoera ahulena dauden ikasleentzako dirulagun-

tza: Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, 2021-2022 ikasturteko neguko jardueretarako, eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtariraren 20an amaitzen da.

Etxarri Aranazko Udalak entitateendako dirulaguntza deialdia: Kultur, kirol eta jendarte erakundeek eskaerak abenduaren 31ko 14:00ak arte aurkez ditzakete. Ikasturte honetan garatuko dituzten jarduerak dira diruz lagunduko direnak. Oinarriak udalean bertan edo www.etxarriaranatz.eus web orrian ikus daitezke.

Altsasuko ludoteka eguberrian: Gabonetan familia ardurak eta lana kontziliatzeko, Altsasuko udal ludotekak abenduaren 23tik 31ra eta ilbeltzaren 3, 4, 5 eta 7an goizez irekiko du. 3 eta 12 urte arteko haurrak ludotekan 08:30etik 13:30era egoteko aukera izanen dute. Orduetegi hori beteko ez balitz, bigarren aukera 11:00etatik 13:30era izanen da. Izen emateko heldu den astea dago. Horretarako, 012 edo 948 012 012 telefonoetara hots egin edo www.altsasu.eus web orriaren bidez izen ematea egin. Matrikula familien diru sarreraren araberakoa da, hamar prezio daude. Hoberiak eskatzeko aukera ere badago. Txanbaxari udal ludotekan zalan-tzak argituko dituzte: 948 467 471 telefonoan edo ludoteka@altsasu.net e-posta helbidean.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daitezke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoa; Etxarri Aranatzeko Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburra.eus

ESKELA



Magdalena Lizarraga Lakuntza

(1932 - 2021)

Hodeien gainetik
paseoak eman ditzazun...

Ebkekuek

JAIOTZAK

- Amir El Akkari, azaroaren 14an Uharteko Arakil
- Jurgen Martin Mendinueta, azaroaren 22an Arbizun

HERIOTZAK

- Magdalena Lizarraga Lakuntza, azaroaren 19an Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

C.A. OSASUNA ELCHE C.F.

AZAROAK 29, ASTELEHENA
21:00-23:00 EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ
(IRRATIKO KONEXIOA 20:45EAN)

euskalerrairratia

beleixe 107.3 FM
ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€
prezio hauek BEZa barne dute.
► Bazkideek %10eko deskontua dute.
► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Juanjo Olsagarre Mendinueta 'Mamu eratortzeko moduak' liburuaren aurkezpenean. ELKAR

Mamuak biziberrituz

Juanjo Olsagarre Mendinueta idazle arbizuarrak 'Mamu eratortzeko moduak' nobela aurkeztu du. Euskal gatazkaren inguruko irakurketa literarioa egiten du, joko literarioen bidez. Protagonistak mamuak dira

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Bi urtean behin Elkar Fundazioak banatzen duen Joseba Jaka beka irabazi zuen 2020. urtean Juanjo Olsagarre Mendinueta. Urte batean bekara aurkeztutako proiektua osatu behar zuen Elkar Fundazioko eta bekako editore eta epaimahaikideen laguntzarekin: Maialen Berasategi, Iratxe Retolaza eta Iban Zaldúa. "Eskerrak eman Elkar Fundazioari beka hau emateagatik. Iruditzen zait modu interesgarria liburuak aurrera ateratzeko. Saria eman beharrean, proiektu bati ateratzeko aukera ematen diote eta epaimahaiarekin elkartruke bat sortzen da". Liburuaren lehenengo bertsiotik argitaratu denera epaimahai kidei esker "hobetu" dela esan zuen arbizuarrak Bilboko Elkarren egindako aurkezpenean. "Gero irakurleek esango dute".

Mamu eratortzeko moduak Bilboko aurkezpenean "arazo" bat zegoela aipatu zuen Olsagarrek: ez zuen liburuaren mekanismoari buruz asko hitz egin nahi izan. "Liburuak badauka mekanismo bat eta gauzak nik gehiegi azaltzea ez dakit mekanismo hori apurtzea ote den". Xabier Mendiguren editorearen galderei erantzunez, ordea, liburuaren nondik norakoak azaldu zituen, eta lehenengo galdera liburuak zer kontaktzen duen izan zen. Olsagarrek iraskasleek ikasleei eskatzen dieten bezala liburuak

JUANJO OLASAGARREK ELKAR FUNDAZIOAREN JOSEBA JAKA BEKA JASO ZUEN PROIEKTUA GARATZEKO

esaldi batean definitzen saiatu zen: "Zorionez bizi garen garaiekin bat egin nahi nuen eta biktimak zertan diren edo zer diren erakutsi nahi nuen".

Gatazka

Euskal gatazka da liburuaren gaia, Olsagarraren lanean berria ez dena, Mendigurenek gogoratu bezala. Obsesioa ote den edo nahigabe ateratzen ote zaion galdetu zion idazleari: "Nobelista erretiratu batek, Jokin Muñozek, esaten zuen euskal literaturak eskaini zezakeen plus bat dela munduari euskal gatazka kontatzea. Oso hemengoa delako. Horrek ez du esan nahi beste tokietan ez dela gertatzen". Haren belaunaldiari eta aurrekoei gertatzen zaien gauza "inportante" bat dela azaldu zuen, "eta gure buruak etikoki, politikoki eta

nobelistikoki ere irakurtzeko ematen du".

Gatazka atzera uzten ari den neurrian, "fantasmala edo mamuzkoa bihurtzen ari dela" adierazi nahi zuen. "Metafora hau ez dut nik sortu. Toki askotan sortu da". Besteak beste, Muñozen eta Zalduaren nobeletan metafora hau agertzen dela aipatu du. "Mamuek daukaten gauza ona errealitate eta ez-errealitate tarte horretan bizi direla da", eta bi munduak irakur ditzakete, beraz. Liburuak ere gotikotasunetik baduela gaineratu du.

Fantasmak hor zeuden, biktimak dira, eta idazleak jolastu nahi zuela azaldu zuen. "Honekin ez dut irakurlea izutu nahi, baina teknika literarioarekin jolastu nahi nuen". Narratzaileak lehendabiziko, bigarren eta hirugarren pertsonan agertzen da, orainaldian eta iraganaldian, diskurtsoaren erdian EAEko buletinaren zatiak agertzen dira, elkarrizketak, narrazio hutsa berriz, ipuin bat... "Puzzle batekin zerbait koherentea egiten saiatu nahi nuen. Ez dakit lortu dudana". Helburua istorioa hainbat teknika edo puskekin sortzea zen, "eta irakurlea ez galtzea hortik". Nobela bat irakurtzen denean lehendabiziko hitzetatik nobelagilearen eta irakurlearen artean "halako itun bat" sinatzen da, eta *Mamu eratortzeko moduak* liburuak "kapituluz kapitulu" itun hori berritu behar dela azaldu du.

Tonua

Nobelak tonu mingotsa duela azaldu zuen Mendigurenek. Umorea ere baduela erantzun zion Olsagarrek. Arbizuarra Hego Afrikan apartheid, amnistiaren eta Mandelaren prozesuaren garaian egon zela aipatu du, "eta nahiko markatu zidan". Etxera itzuliz ETak armak utzi zituen "prozesua gelditu" zela iruditzen zaio, garai horretan ere 2008ko ekonomia krisialdia zelako. "Irukitzen zait orain berriz hartzen ari dela". UPNk German Rodríguez, Lasa eta Zabalen

"PUZZLE BATEKIN ZERBAIT KOHERENTEA EGITEN SAIATU NAHI NUEN"
JUANJO OLASAGARRE

eta abarren kasuetan "ez zuelako sentsibilitate" eduki bar-kamena eskatu zuen aurreko astean, *Maixabel* filma egin da... "Hor ari gara". Baina oraindik "min asko" dagoela uste du. "Min hori azaleratzeak lasaitzen du. Dolu prozesu batean bezala gaude". Mingotsa "berez" ateratzen zaiola aitortu du. "Baina min bat dagoelako, eta agertzen da".

"Nik nobela bat idatzi nahi izan dut nire kezkekin. Norbait balio badio katarsi bezala, ongi. Baina ni ez naiz Fernando Aranburu eta ez dut idatzi nahi gatazkaren inguruko hitz katartikoa". Ez da Olsagarraren asmoa lan katartikoa egitea. "Biktimak irudikatzea eta errealitate hori beste nonbaitetik ikustarazi nahi nuen". Mamuen mundu batetik, hain zuzen. Liburuan ez dago eztabaida politikorik. "Nabardura batzuk badaude, peripeziaren bat. Biktimak agertzen dira, galdezka. Baina zeharka norbaitek zerbait esaten badio etikaren aldetik, hori irakurleak jartzen du".

Geografia

Asko aurreratu gabe, Bilbon hasten da istorioa eta Euskal Herriatik barna bidaia egiten dute pertsonaiek. "Geografia bat sortu nuen: Lekunberri Aranatz. Nafarroako herri bat da, Arbizu izan daiteke, Altsasu edo Elizondo". Askotan haien pertsonaiaiek Lekunberrikoak dira edo bertatik pasatzen dira. "Bilboko pertsonaia bat da, baina nire geografia hori bisitatzea ermaten dut". Obaba ez dela aipatu du arbizuarrak, "askoz txikiagoa bada", baina geografia bat sortzea eta hara itzultzea eroso dela esan du.

Mamu eratortzeko moduak liburuak idazteko Olsagarrek, besteak beste, Irene Villaren eta Iñaki Rekarteren memoriak irakurri ditu eta gaiarekin zerkusirik duten antzezlanak eta filmak ikusi ditu "irudikatu ahal izateko zer senti zezaketen. Dokumentazioak jartzen zaitu toki batean, eta sinetsi nahi dut toki horretako jakintza hartuta pertsonaiaarekiko koherentzia lortu duzula". Izan ere, esan zuenez, mamuek ere koherentzia dute. "Erabaki beharra zegoen noraino ikusten zuten errealiatzea, norik ikusten zuten eta norik ez".

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerako prest

Azaroaren 28an, igandean, izanen da. Zortzi bertsolari sailkatu dira, tartean Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra

SAKANA

Nafarroa ia osoa zeharkatu ondoren, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren amaierara iritsiko da igandean, 17:00etan, Iruñeko Anaitasuna Kiroldegian. Lehian Eneko Fernandez Maritxalar, Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra, Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Altzuri, Julio Soto Ezkurdia, Saioa Alkaiza Guallar, Xabat Illarregi Marzol eta Xabier Silveira Etxeberria arituko dira. Sarrerak salgai daude, eta ETB4 katean eta bertsoa.eus eta eitb.eus atar

rietan zuzenean ikusteko aukera izanen da ere.

29 bertsolarik abiatu zuten bidea, eta zortzi iritsi dira finalera. Anaitasunako oholtzan ariko dira kantari. Batek jantziko du txapela, Estitxu Arozena Albizuren eskutik. Alaitz Rokondok eta Ander Aranburu Arriolak aurkeztuko dute saioa. Bi atal izanen ditu: lehenengoan zortzi bertsolariak ariko dira. Bigarrenean, lehen atalean puntu gehien eskuratutako bi bertsolariak pasako dira. Bi ataletan puntuazio gehien lortzen duenak irabaziko du.



BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Etxean bero-bero irakurtzeko proposamenak

Hasteko euskarazko bat: **Ene baitan bizi da**, Maddi Ane Txoperena Iribarren gaztearena. Kontakizun honetan Marie da protagonista, zein Parisen ikasketak bukatzen ari den, eta Donibane Lohitzunera doan amonarenera azken memoria lanerako informazio bila. Bien arteko harreman estuak ez dizkio informazio bilaketa lanak erraztuko, eta festa, lana, lagun eta amodioa uztartuz pasako zaio uda Mariერი.

Gaztelarazko bat: **De ninguna parte** Julia Navararren azkena. Eleberri honetako protagonistak haien identitatearekin amaigabeko gatazka batean bizi dira. Abir Pariseko senideek hartzen dute, gurasoak eta arreba israeldar armadak nola hiltzen dizkion ikusi eta gero. Jacob Baudin soldaduska egiten ari zen israeldar armadak Abirren gurasoak eta senideak hil zituenean, berak aukeratu ez dituen etsaien aurka. Guraso frantsesen semea, etorkin sentitzen da Israelen, eta judutar izaerak dakarkion

identitatearekin adiskidetzen saiatu nahian ari da. Harrapatuta sentituko da Abir Parisen, alde batetik familiako giro itogarriagatik eta bestetik askatasuna eskaintzen dion gizarteagatik. Askatasun honen adierazle izango dira bere lehenegusina Noura eta Marion. Noura bere aitak inposatu nahi dizkion arauen aurka errebelatuko da eta Abir Marioneekin maiteminduko da modu obsesiboan. "De ninguna parte" aukeratu ez dituzten identitateen arabera bizitzera behartuta dauden pertsonaia batzuen istorioa da. Bukieran, haien bizitzak gurutzatuko dira kontakizunari ezusteko bira emanez.

8 eta 11 urte tartekoendako: **La casa del árbol 13 pisos**, eta jarraian etorri diren beste bost dira Urdiaingo liburutegian azken aldian arrakastatsu. Andy eta Terry zuhaitzeko etxe batean bizi dira; munduko zuhaitzeko etxerik zoragarrienean! Hamahiru solairu dauzka, bola-pista, igerileku garden bat, lurrazpiko laborategi sekretu bat eta "txutxeak" banatzen dituen makina. Zenbat eta pisu gehiago, are eta aukera gehiago egoera bitxietan murgiltzeko: txokolatzeko ur jauzia, dinosauro kume zoo bat, aktiboa dagoen sumendi bat... Edozein gauza gerta daiteke zuhaitzeko etxe honetan!

Sexua, Porno, Afrodita eta rock and rolla

'Porno vs Afrodita (edo I ♥ #gorkaurbizu)' antzeulanak heziketa sexual eta afektiboa du ardatz. Gazteak, helduak, mamuak eta jainko-jainkosak agertzen dira, baita zuzeneko musika ere. Gaur Etxarri Aranatzen izanen dira

ETXARRI ARANATZ

Duela bi urte inguru Skolae sexu eta afektibitate hezkuntzarako programaren inguruan sortutako zalaparta izan zen *Porno vs Afrodita (edo I ♥ #gorkaurbizu)* antzeulanaren abiapuntu. "Gazteen artean pornoaren kontsumoaren zenbakiak aztertzean ikusten da hezkuntza sexual eta afektibo hori ez dagoenean nora jotzen duten: Internetara". Eta Interneten pornoa aurkitzen dutela azaldu du Patricia Urrutia BenetaBe antzerki konpainiako kideak eta antzeulanaren sortzaileak. "Ikerketa lan bat egiten hasi ginen".

Ikerketa egin ondoren erabaki zuten gazteen eta haien ezjakintasunak ez zirela hain desberdinak, eta taularen gainean, "maitasun osoz", jarriko zituztela. "Behintzat hausnarketarako bidea izateko". Barrearen bidez "mamuak uxatzea" lortzen badute, hobe. Horrela sortu zen *Porno vs Afrodita (edo I ♥ #gorkaurbizu)* antzezlana. Gaur, azaroak 26, 19:00etan, Etxarri Aranatzko kultur etxean, Nafarroan mustuko dute.

Bederatzi pertsonaia egiten dituzte hiru aktoreek. Gaztetxe baten azkenengo gaua da, ez dagoelako errelebo generazionalik. 40 urte inguruko gazteak dagoeneko ez dira hain gazteak, eta familiak, lanak eta bizitzak gain hartu dituzte. Rock banda bateko hiru kide gelditzen dira, hasi zirenean hamaika zirenean. Azken kontzerturako soinu probak egiten ari dira. Hortik ere nerabeak agertzen dira, eta mamuak eta desioak. Piramidearen goikaldean Porno eta Afrodita jainko eta jainkosa agertzen dira. "Hilkorrak, helduak eta gazteak, euren bizitzekin ahal dutena egiten; beste errealitate batean bi heroi super cool daude, bi rock star, Aneren egoera emozionalarekin lotuta, eta gero Porno eta Afro-



Porno vs Afrodita antzeulanaren une bat. BENETANBE

dita gizakien pasioak muturre-raino eramaten".

Urrutiak abiatu zuen ikerketa albistetatik jasotako datuekin eta gertuko zituena gazteengatik. "Pentsatzen duzu hainbat gauza gaitzuta daudela, afektibitate eta sexualitatea modu askotan bizitzen dela. Baina atzera goaz". Jakin-min horretatik testua idazten hasi zen. Idazteko dirulaguntza jaso zuen, eta Durangoko Azokan mustuko du. Testua sortzen zuen bitartean, Elena Olivieri eta Pablo Ibaluzearekin zuzendaritza taldea sortzen duten pertsonekin eta Juanjo Oterorekin eta Ion Zumelaga aktoreekin konstatatzen zuen, baita Asier Iturarte musika zuzendariarekin ere. "Nik idatzitako testu hori guztion ekarpenekin kolorez betetzen hasi zen, berridatzi nuen, eta testu behin betikoa osatzen joan gara". Prozesu horretan urte eta erdi pasa dute, ia bi urte, eta aurreko urtean, pandemiaren erdian, aurkeztu zuten antzezlana.

Antzerki kontzertua

Musika zuzenean jotzen dute. "Ez da aitzakia. Eszenan bi

anpli, gitarrak, bateria, baxua eta hiru mikrofono badituzu, jo behar duzu". Abesti originalak sortu dituzte, eta klasi-koen bertsioak egiten dituzte ere. "Musika emozioen garraiatzailea da, eta elkartzen gaituen zerbait da". Konektore lanak egiten ditu, "heldu eta gazteen artean, gazteen artean, antzele eta publikoaren artean...". Bizitzan bezala. Egoera zela eta, non publiko ezin zen altxatu eta kontzertu gutxi egin diren, jendeak "dantzatzeko gogoia" izan duela esan diote emanaldiren baten bukaeran.

"Traolak ematen du pista". Antzeulanaren izenburuan traola bat agertzen da eta sare sozialek harremanetan jokatzen duten papera adierazi nahi izan dute. "Nola areagotzen den hori rock star baten irudiarekin eta sortzen den sasi gertutasun bat. Zeinen erraza den agertzea eta desagertzea, zein mailaraino egiten diren harremanak...". Muturrera eramateko rock starraren irudia erabili dute, eta Gorka Urbizu "ez izan rock starraren estereotipoa" berera eramanez dute.

Haurra zenetik oso argi zeukan: dantzari izan nahi zuen. Baina Altsasun euskal dantza ez ezik, beste estiloetan trebatzeko aukera gutxi zeuden eta gaztetik Iruñera joan behar izan zuen balletaren munduan sartzeko. Madrilerara joan zen goi mailako ikasketak egiteko. Herrira itzultzeko momentua iritsi zen. Bere ametsa gertuago zegoen. 2015eko azaroaren 21ean Irantzu Gonzalez Dantza Eskola mustu zuen Altsasun. Aurreko urtean bosgarren urteurrena izan zen, zenbaki borobila, ospatu beharrekoa. Baina pandemia egotzagatik ezin izan zuen nahi bezala ospatu, eta aurten, igandean, 5+1. *Eskerrik asko!* emanaldi erraldoia egin zuen Burunda frontoian eskola osatzen duten pertsona guztiekin. Baita dantzari gonbidatuekin ere.

Nola hasi zinen?

Madrilen egon ondoren herrira itzultzeko gogoak nituen, eta kiroldegian dantza klaseak ematen hasi nintzen. Nire ametsa zen dantza klasikoko, garaikideko eta modernoko espazio bat sortzea lehenengo dantzari urteetan hirira joan behar ez izateko. Sei urte ondoren, atzera begiratuta, gertatzen ari dela ikusten dut. Dagoeneko bik profesional izan nahi dute.

Zer onura ditu dantzak?

Eskolan dantzako lehenengo urrats horietan lagundu nahi dugu, dantzari bezala formatzea gustatzen zait, etorkizun profesionala izan nahi edo ez. Gorputzaren ezagutzearen onuragatik. Dantzaren bitartez gorputzarekiko ezagutza handia lortzen duzu, gorputz osoa mugitzen duzulako. Ez bakarrik fisikoki, baita emozionalki ere. Dantzak emozioak mugitzen ditu. Integrazteko, beldurrak kentzeko, publikoaren aurrean aritzeko, autoestimoa igotzeko eta abarrerako ona da. Bizitzeko modu bat da.

Zein izan da eskolaren ibilbidea?

Urratsez urrats joan naiz. Beti aurrera egiten dut, baina ezinezkoa da beldurra ez agertzea. Proiektuarekin hasi nintzen, atzera botatzen zuten, berriz aurkeztu, atzera bota, joan eta etorri asko... Eskola hasi zenean 70 bat ikasle hasi ziren eta pixkanaka handitzen joan da. Bigarren urtean obra egin behar izan genuen bigarren areto bat egiteko. Orain, 250 bat ikasle daude. **Nola eragin dizue pandemiak?**

"Dantza beraien bizitzaren parte da"

IRANTZU GONZALEZ AZPIROZ DANTZARIA ETA DANTZA IRAKASLEA

Herrian dantza eskola sortzeko ametsa duela sei urte bete zuen. Igandean urteurrena gala erraldoi batekin ospatu zuen



Irantzu Gonzalez Azpirozek duela sei urte sortu zuen izen bereko dantza eskola. UTZITAKOAK

Jende guztiarendako bezala gogorra izan zen. Momentua bizitzera erakutsi digu. Egun batetik bestera dena aldatzen zen eta egokitzea ikasi dugu: edukierak, talde handiak banatu, irakasleak FPP2 maskarekin arratsalde osoa

"ILUSIO HANDIA EGITEN ZIDAN IKASLE GUZTIAK ELKARTU FESTA HANDI BATEAN"

dantzatzen... Zorionak beraiei ez dugulako etsi. Pandemia ongi etorri zaigu eskola berrantolatzeke. Reset egiteko. Orain arte nola funtzionatzen ari ginen eta nola nahi dugun funtzionatu pentsatzeko. Gauza berriak pentsatzeko ere; artisten bizitzan etengabe ari gara sortzen.

Zer estilo eskaintzen ditu?

3 edo 4 urterekin hasten direnean pre-balletekin hasten dira. Jokoaren bidez dantzan hastea. Lehen Hezkuntzan hasten direnean dantza modernoarekin hasten dira, gure eskolaren oinarria dena. Dantza klasikorekin eta garaikidearen oinarriarekin sartzten dira modernoan. Gero dantza urbanoa dago, hip hop, funky eta abar. 20 bat talde daude.

Zu bakarrik hasi zinen, eta orain talde bat zarete.

Ni bakarrik hasi nintzen eta gero idazkaritzan Izaskun sartu zen. Lehenengo urtearen amaieran Leire sartu zen laguntzaile bezala. Gero Igone, Nerea, Eneritz, Saioa, Irati eta abar sartu ziren. Orain kontratatuta Nerea, Igone, Irati eta Leire daude, eta Maitane idazkaritzan. Jeni, urbanoko irakaslea, autonomoa da.

Urteurren festa erraldoia ospatu duzue. Nola sortu zen ideia?

Idea aspaldi zegoen. Urteak betetzen joaten ginen heinean bosgarren urteurrenean zerbait oso handia eginen genuela esaten genuen. Bosgarren urteurrena iritsi zen, eta larunbata zen. Baina aurreko urtean garai honetan koronabirusak gogor jotzen zuen; oso polita gelditu zen zerbait egin genuen online. Aurten bost

gehi bat ospatzea erabaki genuen. Niri ilusio handia egiten zidan ikasle guztiak elkartu festa handi bat ospatzeko. Jaialdiak egiten ditugunean kamerinoan geratzen dira, eta jaialdia bideoz ikusten dute. Eskolaz kanpoko dantzariak egon ziren ere: Saioa eta Angela Dantzertitik, Paula, Sauco Madriletik... Bosgarren urteurrena ospatzea niretako oso garrantzitsua zen. Zaila da empresa bat martxan jartzea eta aurrera egin dugula ospatzea da.

Zer moduz joan zen gala?

Oso polita izan zen. Izugarria. Hobetzeko gauzak badira, eta balantzea egin behar dugu. Baina talde osoa izugarria izan zelakoan gelditu ginen. Gehien harritu ninduen da zeinen ongi portatu ziren dantzari guztiak. Haur asko ziren, baita oso txikiak ere. Denak oso pozik zeuden.

Dantzarekiko duzun harremana aldatu da?

Dantza nire erlijioa da. Nire egunerokotasuna eta nire guztia da. Harremana hobetu da. Dantza erakutsi ahal izatea eta ikustea nola dantzatzen duten eta dantzak zer eskaintzen dien... badira txikien talde batzuk ordu gehiago eskatzen dizkidanenak. Dantza guk bezala bizitzen dute. Hori oso polita da.

Zer suposatzen du bi ikaslek profesional izan nahi izateak? Zerikusia izan duzu?

Pentsatu nahi dut baietz. Eskolan objektiboak betetzen ari direla ikusten duzu. Dantza maite dutela ikustea eta probetan duten emozioa sentitzea oso polita da. Ezin da deskribatu. Baina ilusio berdina ematen dit profesional izan nahi ez dutenak eta dantza egiten jarraitzen dutenak. Nahiz eta profesionalak ez izan, dantzak bere bizitzaren parte izaten jarraitzen dute. Kontuan izan behar da gorputzak eta dantzak adin tarte bat duela.

Eskolaren une politikak?

Gelako emozioak ikustea, denbora gehiago geratu nahi izatea, etortzen direnean besarkada handi bat ematen dizutenean, talde giroa ikustea, elkarren artean laguntzen dutela ikustea, irakasleekin duten komunikazioa, eskolara familia bat balitz bezala etortzea... Entsegu ordu asko pasatzen dituzte hemen, haien bigarren etxea bezalakoa da.

Eta txarrak?

Batzuetan erabakiak hartu behar dituzu, oso ados ez zaudenak, baina hartu beharrekoak.

"Elkarrekin gauza asko egin daitezke"

Aurretik lizerratarak kantuak kantatu eta abesten aritu badira ere, San Klemente festetako larunbatean mustu zen Lizarraga Kantuz ekimena, auzoan kantatu zuten lehendabizi, herrian barna ondoren

Alfredo Alvaro Igoa LIZARRAGA

1 Kantatzeko zaletasuna badago herrian?

Miren. Badago, bai. Ez dugu entseatzeko.

Jone. Orain jendeari ez zaio hainbeste entzuten, baina duela urte batzuk elkartean elkartzen ginen, eta beti afari guztiak kantatzak akabatzen genituen. Baina kantatzea gustatzen zaigu.

2 Noiz kantatzen da?

M. Edozein tokitan ikusten baduzu korrotxo bat, bi-hiru lagun kantatzen, jendea elkartzen da eta kantatzen du. Aukera dagoenean, jende askok aprobetxatzen du. Gustatu egiten da herrian kantatzea. Beste gauza bat da prestatzea. Baina musika aditzen badugu, kantatzea gustatzen zaigu.

3 Nola ikasten dituzue kantak?

J. Lizarraga Kantuz-erako bildutako kanta denak zaharrak dira, gure garaian herriko festetan ikasi genituenak. Bestela, Youtuben jartzen dugu, eta horren bidez ikasten ditugu kantak. **M.** Goatzean, senarra leitzen eta ni aurikularrak jantzita, Youtuben, jo ta ke errepikatzen, ikasten. Pixka bat itxuran ateratzeko. Talde txiki batek kanta baldin badakigu, besteak etorriko dira, juntatuko gara, eta segituko digute.

4 Zein estilotoakoak gustatzen zaizkizue?

M. Niri behintzat goxoak, barrua pixka bat ukitzen dutenak. Baina talderen bat mexikarrak kantatzen badago, kantatzera joaten gara. Agian ez dakizu letra osorik, baina, beno... Denetarik, estilo guztiak.

5 Nolaz sortu da Lizarraga Kantuz?

J. 2018an Euskaraldia hasteko egunak San Klementerekin



Jone eta Miren Agirre Elso Lizarraga Kantuz ekimeneko sustatzaileak.

bat egin zuen. Eta gogoratu ginen duela 40 urte hemengo batek kantatzen zuela kantu bat: *Ene haurtxo maitea*. Euskara galtzeko zorian egon zitekeela ikusten zen. Gustura kantatu genuen tripoteoan, eta herriari buelta eman genion. Hor gelditu zen. Aurten, festak zirela eta, pentsatu genuen: "guk nahi duguna eta gustatzen zaiguna da herrian egon, herriarekin bizi eta herri txiki hauek ez hiltzea". Hori eta gure hizkuntza, euskara, ez galtzea nahi dugu. Iruditu zitzaigun polita izan zitekeela gure festa eta gure gogo hori herriko bazter guztietara eramatea. Eta Lizarraga Kantuz izena jarri diogu.

6 Nondik sortzen da herriari emateko gogo hori?

M. Gu baino lehen, zaharrak ohartu ziren bakarrik motza dela, elkarrekin gauza asko egin dai-

tezkeela. Gurasoek beti esaten ziguten: "segi, segi herrian laguntzera; segi, segi, hor ere norbait behar da lanean". Ikusten genuen gozatzen zutela izugarri besteak gozatzen ikustean. Hortik atera zitzaigun herrian parte hartu behar genuela, lagundu behar genuela. Baina gurasoengandik ikasi genuen.

7 Beraz, elkarrekin herria egitea da kontua?

J. Hori da. Denok batera herria eta euskara aurrera!
M. Euskara, hizkuntza, ez dugu galdu nahi. Agian ez da galduko, baina herdoildu egingen da. Hori ere ez dugu nahi. Eta pentsatu dugu modu erraz bat dela elkarrekin kantatzea. Garai batean hemen Valtierako mediku bat zegoen. Gizon hura oso kezkatuta zegoen. Behin eskolara etorri eta esan zigun: *Ignorantes!* ¿Con

qué se anda mejor con dos pies o con uno? Erdara ikasi, euskara ez ahaztu. Nire buruan grabatuta gelditu zen betirako.

8 Zenbat elkartu zarete?

J. Sei lagun. Ez dugu zuzendaririk, gaizki egiten dugula ohartzean Youtubera jotzen dugu. Oso gutxitan elkartu gara, bi egunez. Asmoa da herriari barruan dugun hori ematea.

9 Zer giro sortu da?

M. Oso animatuak gara. Denaren aurretik eskuzabalatasuna eta borondatea dago.

10 Aurrerago gehiagotan aterako zarete kantatzera?

J. Zerbait polita da, eta aurrera egingen dugula pentsatzen dut.

M. Gainera, Olentzero egunean, herriari buelta ematen diogu eta kantaz ibiltzen gara. Eta erregetan ere. Ergoienako hiru herrietan kantatzen dugu. Aurten aipatu genuen kantaren bat edo beste aldatzea. Ilusio pixka bat ikusten zen. Ahal duguna egingen dugu. Seguru zerbait aterako dela, ez dugu hau nolana hiltzen utziko.

11 Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko?

M. Hala dela uste dut. Eta Lizarraga hau, pentsatzen dut, ez dela hil behar. Gure atzetik heldu direnek ere segituko dute. **J.** Lehendabizi eman egin behar da, gero hartzeko. Ez bada ematen, ez da hartzen. Hori da ikasiduguna.

AZKEN EGUNAK

ZURE OPARIAREKIN AHO ZABALIK UTZIKO DITUZU!

ZURE EGUTEGIA NAHIERAN 3 PAUSOTAN

AUKERATU EREDUA ZURE KOLOREAK ZURE ARGAZKIAK ETA GUK PRESTATUKO DIZUGU!

Zureaz galdetu konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu